


# HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA



## Akordioaren Oinarriak

*Euskadi, auzolana*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## AURKIBIDEA

---

### SARRERA

1. HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA
2. BIZIKIDETZA
3. HIZKUNTZAK
4. EBALUAZIOA
5. IKASTETXEEN AUTONOMIA
6. AKORDIOARAKO OINARRIAK



## EUSKADIKO HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA SARRERA

---

### Hezkuntzaren erronka, herrialdearen lehentasuna.

Hezkuntzaz jardutea, herri-erronka batez jardutea da.

Hezkuntza, gizarte batentzat, herrialde batentzat, eragin eta konplexutasun gehieneko apustu estrategikoetako bat da, eta maila pertsonalean eta sozialean dugun indar eraldatzailerik ahaltsuena da.

Etengabe aldatzen ari den testuinguruan, indar eraldatzaile horri eustek gogogabetasunak gainditzea eta sasoi berrietara egokitzea dakar. Aldaketa azeleratuen sasoiak dira; horiek beharizan berriak, pentsatzeko eta ikasteko modu berriak, gizarte-konfigurazio eta -parametro berriak, sekulako informazioa eta eskuragarria, komunikazio-tresna berriak, teknologia berriek sortutako gaitasun berriak eta adimen artifiziala eragiten dituzte.

Gure Hezkuntza Sistema urteetan zehar hura eraikitzen lagundu duten pertsona askoren lanaren, eginahalaren eta bokazioaren emaitza da. Bai legegintzaldi desberdinetako arduradun politikoaren lanaren ondorio, bai familia, irakasleena, sindikatuena, kooperatibena edo patronaletako arduradunena.

Euskal Hezkuntza Sistema gure ondarearen zati da, eta horren gainean eraikitzen jarraitzen dugu. Beraz, oinarri sendo eta finko bat dugu abiapuntuan.

Hala ere, aurrera egin behar dugu, hobetu, hazi, eta garai berrietara egokitu; hezkuntza-kalitatearen alde apustu egiten jarraitu behar dugu, gizarte-berdintasunaren alde eta, horrela, bikaintasuna sustatzen jarraitu behar dugu, ebaluazioaren, berrikuntzaren eta ikerketaren kulturaren aldeko apustu egiten, hezkuntza-elkartearen prestakuntzari lehentasuna ematen, aniztasuna zabaltzen edo euskara ardatz nagusi izanik hezkuntza integralaren alde egiten.

Sistema inklusibo eta ekitatibo batean dugu abiapuntua, gizarteari aukera berak eskaintzen dizkiona; adierazle batzuk onak dira, baina, hori hala izanik ere, badakigu hobetu egin behar dugula.

Gaur, berriz ere, erronka kolektiboa dugu aurrez aurre, herrialde-erronka bere horretan, hezkuntza-elkarte osoari dagokiguna; erantzukizun partekatua da, guztioi



baitagokigu etorkizun hobea sortzea, etorkizunean gure gizartea osatuko dutenei eta lidergoa eramango dutenei beharrezko lanabesak ematea.

Euskadin, aurretik ere esperientzia hori bizi izan dugu, eta, egungo egoerak ordukoarekin zerikusirik ez badu ere, gogora ekarri behar dugu 93ko Akordioa, duela 25 urte orain dugunaren oinarriari bide eman eta sustraiak ezarri zituena.

Euskadin, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legea erabat indarrean dugu, adostasun politiko eta sozial handiarekin onetsi zena, eta horrek eman digu 25 urte hauetan zehar beharrezko araudi-esparrua. Zioen Azalpenean, Euskadik hezkuntza-arloan dituen gaitasunen berezitasuna nabarmentzen du; gainera, autonomia-erkidego honek hezkuntza-sistemak kontuan izan behar dituen berezko kultura-ezaugarriak eta bi hizkuntza ofizial ditu, eta horiek garatzen lagundu behar du.

Baina hezkuntza arlo bizia da, garaiekin modulatu beharrekoa, eta haietara egokitu. Horrela, hezkuntza-sistema aldatzen joan da, urteetan zehar, gizartea bilakatzen joan den neurrian. Irakasteko eta ikasteko moduak aldatu egin dira. Hezkuntzaren bideak gizartearen ibilbidearekin bat egin behar du, edo, alderantziz, gizarteak hezkuntzan garatutakoarekin egin behar du bat.

Hezkuntzan azken urteotan izan diren aldaketa sakonak direla eta, hezkuntza-ikuspegia eguneratu eta berritu behar da. Hezkuntza, maila globalean, paradigma-aldaketa jasaten ari da, eta, hori dela eta, horretara egokitu beharra dago.

Hezkuntzaren ikuspegi integraletik, gure helburua euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egitea da, bikaintasunerako bidean, eta, horretarako, zuzentasuna, gizarte-kohesioa, balioetan oinarritutako hezkuntza, aniztasunarekiko errespetua eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasuna eta giza eskubideak eta aniztasunaren aldeko defentsa sustatzea. Bide horretan, era berean, kultura zientifikoa eta giza zientziak konbinatzen dituen hezkuntza-eredua sustatzea dugu helburu, bizitzan zeharreko ikaskuntzarekin osatzen dena eta ikasleei errealitatearen ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea ematen diena.

Gertatzen ari diren aldaketak direla eta, euskal hezkuntza-elkartea eratzen dugun ikuspegiok hausnarketa eta egokitzapena egin behar dugu.



## Baterako xedeari erantzungo dion Hezkuntzaren aldeko Akordio berria izateko beharra.

Elkarrizketa, hausnarketa partekatua, akordioa dira gure hezkuntza-sistema eraikitzeko izan ditugun oinarriak eta aldaketarako euskarria.

Hezkuntzan aldaketak egiteko bereizgarria denbora da; ez dira egun batetik bestera lortzen eta, hori dela eta, egonkortasunerako esparrua ireki behar da, eta, egonkortasun hori bermatzeko, gure sistema garai berrietako eskakizunetara egokitzeko aukera emango duten printzipio eta konpromisoak landu behar dira.

Gure Hezkuntza-Sistema berezia da, sistema zuzena delako, erreferentziako hezkuntza-adierazleak dituelako, eskolatzean, inbertsioan, goi-mailako hezkuntzako maila altuan, egokitasunean edo eskola-uztean; horiek hezkuntza-sistema ona dugula adierazten digute. Baina, aldi berean, baditugu erronka batzuk eta hobetzeko alderdi batzuk, besteak beste: gero eta anitzagoa den gizarteak dituen beharrei arreta ematea edo kanpo-ebaluazioen emaitzak, kalitatetik eta zuzentasunetik abiatuta bikaintasunerantz egiteko.

Eta, puntu honetan, aurrera egiteko eta aldaketetara egokitzeko beharra aintzat hartuta, legegintzaldi honetan Hezkuntzaren Euskal Legea onesteko konpromisoa dugu. Lege horrek denboran iraun behar du, egonkortasuna eman behar dio sistemari, eta aldi berean etengabe egokitzea ahalbidetuko dion araudi-garapena eman behar dio. Izan ere, hezkuntza-hobekuntzak epe ertain eta luzera antzematen dira. Beraz, denbora eta egonkortasuna behar dute, bai eta nahitaez izango diren aldaketetara egokitzeko malgutasuna ere. Eta guztiona izan behar du.

Baina, aurretik, etorkizuneko Hezkuntza Legea prestatu ahal izateko, elkarrizketan jardun, hausnartu eta etorkizunerako nahi dugun hezkuntza-sistemaren oinarri eta Legearen beraren espiritua izan diren funtsezko printzipioak adostu behar ditugu.

Etorkizuneko Hezkuntza Legeak, gizartearen konpromisoa eta babes badu, hobeto beteko ditu xedeak eta helburuak. Konpromiso horretan gizarte-eragile eta -erakundeek parte hartu behar dute, botere publikoek eta hezkuntza-sistemaren erabiltzaileek beraiek.

Hori dela eta, babes hori izateko, analisirako eta eztabaidarako funtsezko helburua Akordioa lortzeko lan egitea da; akordio horrek baterako ikuspegia, oinarrizko printzipio adostuak eta denbora aldetiko egonkortasuna eman behar dizkie etorkizuneko legearen edukiei.



## Adostasunean oinarritzen den eta izandako lorpenen gainean eraikitzen den akordioa, paradigma berriaren erronketan aurrera egiteko.

Horretarako, hausnarketa partekatua sustatu dugu, gure sistemaren honako erronka hauen inguruan akordioak eraiki ahal izateko:

- **Sistema modernizatzen aurrera egiteak XXI. mendeko gizartearen beharrei erantzun diezaieke**

Hezkuntza-sistemaren modernizazioan aurrera egin behar da, aldatzen den gizartera eta hezkuntzaren paradigma berrira egokitzeko eta, horrela, XXI. mendeko ikaslea ikaskuntza-prozesuaren helburu eta protagonista izateko eta bere hezkuntza-arrakastari bide emateko.

Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza eredua ezartzeak sistema eraldatzea dakar; izan ere, diziplina aniztasunean oinarrituta lan egiten laguntzen du eta hezkuntza-elkarte osoaren ahalegin partekatua eskatzen du. Ikasleak duen zeregina protagonista izateaz gainera, gaitasunetan oinarritzen den lanak aldatu egiten ditu, neurri handi batean, irakasleen rola eta eginkizunak eta zabaldu egiten du irakasleen gaitasun-profila eta beren egitekoa aberasgarriagoa egiten du. Irakasleak hezkuntza eraldatzeko funtsezko pieza direla onartzean, komeni da beren gaitasun-profila berrikustea, ahalduntzea eta prestigioa ematea.

Beraz, proiektu berritzaileak dituzten ikastetxeak sustatzeko erronka dugu, jardunbide egokietatik eta arrakasta-esperientzietatik aurrera egiteko erronka eta, horretarako, gogogabetasunak gainditu eta arriskuak hartu behar ditugu geure gain, ezagutzaz, sormenez eta ilusioz.

- **Bizikidetzari bide ematea, gizarte kohesionatuarentzako eskola anitzaren ardatz antolatzaile gisa.**

Mundu hau gero eta globalizatuagoa eta teknologikoagoa da, etengabe eraldatzen eta aberasten ari diren identitateak eragiten dituzten herritarren mugimendu handiekin lotuta dagoen mundua da, eta, zalantzarik gabe, aberastu egiten gaitu gizarte gisa, baina hezkuntza-ekintza konplexuago egiten du eta erronka berriak dakartza.

Aniztasuna dago ikasgeletan, eta norberaren heziketa-beharretatik bideratu behar da, alegia, ikasle bakoitzak, bere berezitasunean eta aniztasunean oinarrituta, ahalik eta garapen integral handiena lortzeko behar duenera. Beraz, aniztasunarekin elkarbizitzen ikasi behar dugu, bai eskolan, bai bertatik kanpo. Sustatu beharreko balio gisa ulertu



behar da, eta ez gainditu beharreko oztopo gisa; izan ere, aniztasunean dago elkarrenganako errespetua, lankidetzeta eta ikaskuntza partekatua.

Aniztasunaren balioa sendotuko duen, eskolatzeta ez-baztertzailea bermatzen duen eta erantzunkidetasunetik hezkuntza-erantzunak eta -praktikak ikasle bakoitzaren beharretara eta ikaskuntza-ahalmenera egokitzen dituen sistemarentz aurrera egiteko erronka dugu.

- **Sistemaren ebaluazio integrala indartzea, hezkuntza-erantzunak eta erantzunkidetasunetik erantzunak eta -praktikak ikasle bakoitzaren beharretara eta ikaskuntza-ahalmenera egokitzen dituen sistemarentz aurrera egiteko erronka dugu.**

Hezkuntza-erantzunak hobetzeko asmoa betetzeko, nola lortu eta beste sistema batzuek nola lortu duten jakiteko informazioa eskuratu eta aztertu behar da.

Hezkuntza-prozesuaren eta erantzunaren garapenean eragiten duten elementuen ebaluazioa eta horien gaineko ikerketa ezinbesteko baldintza dira erantzunaren oinarritzen den erantzunarako –behar bezala oinarritua– eta hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzarako.

Euskal hezkuntza-sistemak etengabeko hobekuntzarako berezko ebaluazio-sistema izateko, gure sistemaren berezitasunei erantzungo diena, zorrotza, fidagarria eta jarraitua izango dena eta egoerari eta garapeneri buruzko informazioa eta datu objektiboak emango dituen interesa, gaur, sekula baino gehiago, gure sistemaren lehentasunetako bat da. Ebaluazioa prestakuntza-tresna gisa ulertu behar da, eta erantzunak eta ikasketen eta ikasleen hobekuntza izan behar ditu xede.

- **Ardatz nagusi gisa euskara hartuko duen sistema eleaniztuna sendotzea**

Gure erkidegoak bi hizkuntza ofizial ditu, eta horien baldintza soziolinguistikoak desberdinak dira; horrek eragin handia du hezkuntza-sisteman.

Gero eta lotuago dagoen munduan, ezagutzaren gizartea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta pertsonen mugikortasuna berezigarri dituenean, hizkuntza ofizialak ezagutzeaz gainera, hizkuntza global izenez ezagutzen direnetako bat edo batzuk jakin behar dira, pertsonak elkar ezagutu, ideiak elkarrekin trukatu eta kulturen artean ulertu ahal izateko.

Gure hezkuntza-sistema eleaniztunak kalitateko etorkizuna, berdinezalea, inklusiboa eta berritzailea izan behar du, euskara eta euskal kultura ardatz izanik eta, horrela, bi hizkuntza ofizialetan gaitasun aurreratua eskuratzen dela bermatu behar da eta,aldi berean, atzerriko hizkuntzako erdi-maila sustatu. Horretarako, betiere, ikasleen garapen pertsonala, soziala, akademikoa eta profesionala izan behar dira xede.



- **Autonomia gehiago ematea ikastetxeei, beren hezkuntza-proiektuak gara ditzaten, ikastetxe bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.**

Hezkuntza-politiken arauketa- eta gobernamendu-modu berrien artean, ikastetxeen autonomiarako, ikastetxeek beren testuinguru bereziei erantzungo dieten eta emaitzen arabera erantzukizunari lotuta dauden berezko proiektuak garatzeko gaitasunaren gaineko konfiantza izan behar da.

Berezko proiektuak garatzeko, proiektu horiek lidergo pedagogikoaren eta kudeaketa-lidergoaren bidez proiektu horien buru den ikastetxeko zuzendaritza-taldearen garapena eta egonkortasuna sustatu eta bultzatu behar da. Hezkuntza-lidergoak gaitasun bereziak, konpromiso profesionala, motibatze trebetasuna eta berritzeko gaitasuna eskatzen ditu, bai eta komunikatzeko trebetasunak izatea ere, ikastetxe bakoitzean lortu nahi diren ikasketa- eta hezkuntza-emaitzak ekarriko dituen kohesio-, bizikidetzatza- eta lan-giroa lortzeko. Aldi berean, autonomiak hezkuntza-elkartearen parte-hartze aktiboagoa behar du; hori funtsezkoa da ikastetxeko proiektu partekatuak garatzeko.

Dokumentu honek Euskadiko Hezkuntzaren aldeko Akordioaren Oinarriak jasotzen ditu; hausnarketa- eta eztabaida-prozesuaren ondoren, bost hausnarketa-taldetan adostu dira. Talde horietan gure hezkuntza-elkarteko kolektiboetako pertsonak parte hartu dute; horiek era askotako sentsibilitateak eta ezagutza zehatza izan dute lan-eremuan, eta helburua Hezkuntzaren aldeko Akordio honetan esku hartu duten eragile guztien artean ahalik eta adostasun gehien lortzea izan da. Etorkizunerako nahi dugun hezkuntza-sistemako oinarritzko printzipioez ari gara.

Hau da prozesuaren lehen urratsa: dokumentu adostua, prozesu parte-hartzailearen, prozesu sozialaren bidez, datozen urteotarako gure herrialderako beharrezkotzat jotzen dugun hezkuntza zehazten lagunduko diguna.

Euskadin, legegintzaldi honetan, oso konpromiso zehatzak hartu ditugu geure gain, hezkuntza-eremuari dagokionez. Akordioa dugu xede, Hezkuntzaren Euskal Lege berria izateko. Lehendakariak inbestidura-eztabaidan esan bezala, proiektuak adostasun handiak beharko ditu hezkuntza-elkartean, bai eta Legebiltzarrean bertan ere.

Hau da, beraz, euskal gizartearekin dugun konpromisoa. Gure hezkuntza-sistema garatu ahal izateko akordioa, adostasunean oinarritzen den hezkuntza-sistema.

Euskadiko Hezkuntzaren aldeko Akordioa jasotzen duen dokumentuaren sarrera, Lehendakariaren hitzekin itxi nahi dut: "Hezkuntza herrialde-erronka da; kolektiboan





erantzun behar diogu, izan ere, gure etorkizuna jokoan dago. Hezkuntza, prestakuntza eta gaitasunak funtsezkoak dira, gizartea eratzen duten pertsona guztien garapenerako. Gizarte batek, aurreratua izan nahi badu, ekonomia aurreratua izan nahi badu, hezkuntza-sistema aurreratuan oinarritu behar da”.

*Cristina Uriarte*  
Hezkuntzako Sailburua



## 1. HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA

---

### 1.1 ABIAPUNTUA

Hezkuntza, gizarte batentzat, herri batentzat, garrantzi eta konplexutasun handieneko apustu estrategikoen artean dago; izan ere, pertsona eta gizarte mailan eraldatzeko botererik handiena duen indartzat jotzen dugu. Horretarako, inertzia handiak gainditu eta aro berrietara egokitu beharra dauka: behar berriak, pentsatzeko era berriak eta gizarte egituraketa eta parametro berriak dituzten aroetara, eta informazio eskerga eta eskuragarria, komunikazio- eta teknologia- erreminta berriak eta ikasteko modu berriak dituzten aroetara, alegia.

Hezkuntza eta prestakuntza arloko Europako 2020 helburu estrategikoei jarraiki diseinatu den hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko berriaren xedea da hobekuntza kualitatiboak sustatzea, ikasleek konpetentzia maila gorena erdiestea, paradigma-aldaketa batean oinarrituta eta ekitatea eta gizarte kohesioa helburu dituen marko kolektibo batean kokatuta. Ikuspegi honek, besteak beste, hezkuntza-sistema modernizatzeko lau ideia giltzarri hartzen ditu barne: a) ikasleen irteera-profilaren zehaztapena; b) zeharkako eta diziplina barruko oinarrizko konpetentzien lanketa bateratua ikaskuntza-testuinguru berrietan; c) irakaslearen profila egokitzea eta; d) hobekuntzarako ebaluazioaren kultura sustatzea.

Eredu hau gauzatzeak eraldatze sakona dakar, diziplinartekotasunean lan egiten laguntzen duelako batetik, eta hezkuntza-komunitate osoaren ahalegin bateratua eskatzen duelako bestetik. Ikaslea protagonista bilakatzeaz gain, konpetentzietan oinarrituriko lanak errotik aldatzen du irakaslearen rola eta jarduerak, bere profil konpetentziala zabalduz eta bere eginkizuna aberastuz. Eszenatoki berri horretan, irakasleak, prestakuntza bikain batez hornituta, behar bezala ahaldunduta eta, ondorioz, prestigiatuta, transformaziorako eta hezkuntza-arrakastarako ezinbesteko zutabe izaten jarraituko du. Hezkuntza berriak, gainera, lidergo gaitu eta egonkorrik behar ditu, eta familien erantzunkidetasun eta lankidetzaren aldeko apostu zalantzagabea egiten du, bai eta inguruneke beste eragile batzuen partaidetzaren aldekoa ere.

Era berean, sistemaren modernizazioa berrikuntzarako joera duen kultura batez lagunduta etorri behar da. Berrikuntza garatu behar duten profesional guztien esku hartzea, konbentzimendua eta erantzunkidetasuna giltzarriak dira hark arrakasta izan dezan. Horretarako, nahitaez, irakasleen elkarlanerako lan-kultura irekia behar da, komunikazioa, harremana eta lankidetzaren erraztuko dituen sistema bat, eta elkarrenganako konfidantza-giroa irakasle, zuzendaritza, familia eta Administrazioaren artean.

Eredu berriaren garapenak ezinbestez berrikuntza eskatzen du, sistema biziberritzen duen bultzada gisa ulertuta, etengabeko hobekuntzarako akuilu gisa. Halaxe ulertu du Hezkuntza Sailak legegintzaldien joan-etorrian, ikastetxeetan hezkuntza berrizatzeko



programak eta proiektuak bultzatu dituenen ildo estrategikoen aterpean. Gaur, ikuspegi eguneratu batetik, berrikuntza-eredu gaurkotu horrek ikaskuntza-testuinguru berriak sustatu behar ditu eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen eraldaketan eragin behar du. Erronka hauen magnitudea hain da handia eze, eurei ekiteko beharrezko jotzen dela aliantza-ereduak —barnekoak zein kanpokoak— baliatzeko formulak bilatzea. Bide hori jorratuz, ikastetxeen arteko aliantzen edo hezkuntza berritzatzeko sareen —Kalitatea Hezkuntzan, Amara Berri edo Ikas Komunitateak, kasu— promozioak, hala nola mota desberdinetako instituzioen arteko clusterren eraketak kooperazio-esparru bat molda dezakete, berrikuntza gehiago eta sakonagoen sorburu izan daitekeena.

Halaber, azken belaunaldiko teknologien eta digitalizazioaren iraultza prozesu globalizatu, zorabiagarri eta saihestezin batean murgilduta gaudelarik, hezkuntza-komunitatea fenomeno horren garrantzia eta fenomeno bera ere konprenitu eta barneratzeko erronkaren aurrean dago. Hezkuntza Sailak Informazio eta Komunikaziorako Teknologien ezarpena eta garapena sustatu ditu ikastetxeetan. Eguneratze teknologikorako programen helburu izan dira ikasgelen ekipamendua, ikastetxeen konektibitatea, irakasleen trebakuntza eta hezkuntza-edukien eta kudeaketarako baliabide digitalen garapena. Digitalizazioaren egungo eredu berraztertzeak desorekak gainditze aldera, eta teknologia aurreratuenen ezarpenean eta erabileran sakontzeak hobekuntzak ekarri beharko ditu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta ikaskuntzaren pertsonalizazioan, eta sustatu egin beharko ditu ikasleen rol aktiboa, irakasleen rol bideratzailea eta familien partaidetza. Horrekin batean, inklusioaren eta ekitatearen printzipioei eutsiz, eskolak hobeto erantzun ahal izango dio lubaki digitala desagertarazteko ahaleginari eta gizarte-kohesioa areagotzeko konpromisoari.

Gure aurrean, horrenbestez, hainbat erronka ditugu: praktika bikainetatik eta esperientzia arrakastatsuetatik abiatzea; inertziak gainditzea eta arriskuei aurre egitea ezagutzaz, kreatibitatez eta ilusioz; ikastetxe berritzaileak sustatzea, zuzendaritza sendo eta egonkorren lidergoaren pean; hezkuntza eraldatzeko irakaslea giltzarri dela jabetzea, eta ondorioz, bere profil konpetentziala berrikusi eta bere figura ahaldundu eta prestigiatzea; eta Hezkuntza Administrazioaren beraren egiturak eta zerbitzuak egokitzea.

Erronka horiei guztiei adoz eta garantiaz ekiteak gure gizartearen inplikazioa eskatzen du, hala nola hezkuntza-komunitatearen eta Administrazioaren konpromiso argia, zein bere ardurari eutsiz, tamaina horretako transformazioa abiatu eta ahalbidetzeko.



## 1.2 HELBURU NAGUSIA

Hezkuntza-sistemaren eraldaketan sakontzea kompetentzietan oinarrituriko paradigma berrira egokitzeko. Paradigma berri horren baitan, ikasleak, bere ikaskuntza-prozesuaren jomuga eta protagonista bilakatuz, berrikuntza baliatuz, hezkuntza-komunitatearen eragile desberdinen esku hartzea artikulatuz eta bitarteko hoberenak eskainiz, prestakuntza bikainena jasoko du bizitza betea garatu ahal izan dezan, maila pertsonalean zein sozialean, gizarte kohesionatu eta solidario bat eraikitzeko, eta konplexutasuna eta ziurgabetasuna ezaugarri izango dituen etorkizunean.

## 1.3 OINARRIZKO PRINTZPIOAK

### 1.3.1 Irakasle ahaldundu eta prestigiatura behar berriak eta ikasteko era berriak izango dituen ikasleriari erantzuteko.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren paradigma-aldaketari loturiko proposamenei irakasle ondo prestatuak, trebeak, motibatuak eta ikasleen garapenarekiko konprometituak behar dituzte. Sistema aldatzeko inportantzia handieneko eragilea izanik, hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza irakasleen kalitatearen hobekuntzaren mende dago. Ondorioz, irakasleen selekzioak eta prestakuntzak —bai hasierakoak zein etengabekoak— lehenetsuneko kontsiderazioa izan behar dute, bai eta euren ahalduntzea, profesionalitatea eta prestigioa indartzeko beste edozein ekimenek ere.

Irakasleak duen sistemaren giltzarri status hori aintzat hartu behar du gizarteak oro har, baina bereziki hezkuntza-komunitateak, Administrazioak eta irakasleek eta hain eginkizun estrategikoa hartzeko diren izangaiek eurek ere, eta euren guztien adostasuna, konpromisoa eta erantzunkidetasuna beharko dira.

Irakasleen profil kompetenzialari dagokionez, ezinbestez loturik egon behar du hezkuntzaren helburu eta ikasleen irteera-profilarekin, zeina ezarrita dagoen hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoan eta lerrokatuta Europako 2020 helburu estrategikoekin.

Irakasleen esku hartzea eskatzen duten egoeren aniztasunak eta konplexutasunak batetik, eta hezkuntza-paradigma berrira egokitzeko beharrak bestetik, eskatzen dute eze, diziplina arloak menderatzeaz haratago, erreminta, estrategia eta trebetasun sorta zabal bat baliatzea, esaterako: ikasteko grina sustatzea ikaslearengan eta bere bizitza-proiektua eraikitzen laguntzea, familiarekin batera; aniztasuna kudeatzea, proposamen didaktikoak ikasle bakoitzaren beharretara egokituz; teknologia digitalak curriculumean erabiltzea eta integratzea; jarduerak hizkuntza koofizialetan eta atzerriko hizkuntzaren batean garatzea; beste hezitzaile batzuekin koordinatzea eta esperientziak elkartrukatzea ikaskuntza hobetze aldera; bere lanbidearen ikuspegi etikoa eta eragile berritzaile gisa duen gizarte-konpromisoa garatzea. Laburbilduz:



ingurua eta osagaiak eskura jartzea ikasleak ikas dezan pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, besteekin bizitzen, izaten, eta egiten eta ekiten.

Konpetentzia-aukera zabal horren garapenari eusteak prestakuntza-jardueren planteamendu orokorra berrikustea eskatzen du alde batetik, eta irakaskuntzan aritzeko hautatze- eta sarbide-eredua bestetik, irakasteko hoberenak diren horiek erakarri eta atxikitu ahal izateko.

Irakaslearen prestakuntza-prozesu orokorrak hasierako prestakuntza bikain batean egon behar du oinarrituta. Helburu hori erdieste aldera, eta irakaskuntzarako gaitzen duten gradu eta masterrei dagokionez, Irakasleen Unibertsitate Eskolek eta Hezkuntza Fakultateek arreta berezia eskaini beharko diete ikasketa-programei, hezkuntza-eredu pedagogiko berrira molda daitezzen; formazio diziplinarrak, pedagogikoak eta praktikoak oreka egokia izan dezaten; eta ikasketa horietarako hautagaiak selekzionatzeko sistema berrikus dezaten ere. Administrazioak, bere aldetik, eta Unibertsitateekin lankidetzan, prestakuntza dualagoa sustatuko du, tutoretzapeko praktiken eredia eguneratuz, beren prestakuntza-izaera eta funtzio profesionalizatzailea sendotzeko xedearekin. Ondorioz, selekzio, sarbide eta hasierako prestakuntza planteamendu horren arabera, irakaskuntzara sartzeko eredia egokituko du Administrazioak.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, ebidentziak daude baieztatzeko irakasleek konpetentzia irabazten dutela eskolan, taldean ikasten eta ezagutza partekatua eraikitzen den heinean. Indar formatibo hori baliatu eta lankidetzeta eta ikaskuntzeta partekatuaren kultura bultzatzeko, ikastetxearen eraldatzea erraztuko du Administrazioak, ikastetxea "Ikaskuntza Komunitate Profesionala" bilakatzuz, non profesionalek ezagutzak eta esperientziak partekatuko dituzten. Ikastetxeko barne lankidetzeta hori gauzatzeko bitartekoak eskuratzeaz gainera, eskola-sareetan parte hartzea sustatuko du Administrazioak, berdinen arteko elkarlanerako eta ikaskuntzarako aukerak areagotze aldera.

Irakaslearen etengabeko prestakuntzak berrikuntzen ezarpena sustatu behar du eskoletan, arlo desberdinak ikutuz, besteak beste, curriculuma, metodologiak, antolakuntza, edo lankidetzeta familiekin eta komunitateko erakundeekin. Prestakuntza eta berrikuntza-proiektuen garapena zorrotzak eta malguak izan behar dira aldi berean: zorrotzak, ebidentzietan oinarritutako eta kontrastatuta dauden eredu itzalpean diseinatuta egon behar direlako; malguak, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren markoaren barruan kokatu behar direlako, ikastetxearen nahi eta beharrei erantzunez.

Hezkuntza Administrazioak, ikastetxeekin elkarlanean eta erantzunkidetasunean, prestakuntza-prozesuak antolatuko ditu, eta bitarteko egokiak eskainiko ditu horien jarraipen, laguntza eta ebaluaziorako Sailaren laguntza-zerbitzuen bidez, eta kasu bada, Unibertsitatearen lankidetzaz edota beste eragile espezifiko batzuen parte hartzeaz.



Azkenik, eta ebaluazioa hobekuntzarako mesedegarria delakoan, irakasle-funtzioaren ebaluazioari ekin behar zaio, zorroztasunez eta adostasunez. Halaber, ebaluazioak sistemaren beste instantzia eta prozesu batzuetara ere heltzeko egokitasuna aztertu behar da, esaterako, hautaketa- eta prestakuntza- prozesuek, irakasle-praktikan eta ikaskuntzan duen inpaktua baloratu eta emaitzetan oinarritutako erabakiak hartze aldera.

### **1.3.2 Eraldaketa metodologikoa eta ikaskuntza-ingurune berrien garapena, hezkuntza-paradigma berriari erantzuteko oinarriak.**

Digitalizazioaren garapena, hezkuntza-ingurune berrien agerpena eta kompetentzien garapenean oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza eredu berriak hezkuntza-paradigma berriaren elementuak dira, hezkuntza-emaitzen hobekuntza lortzeko eta gizarte kohesionatu eta inteligenteagoa eraikitzeko kudeatu beharko ditugunak.

Ikasgelara eramandako hezkuntza-pedagogia marko berriak nahitaez irakaskuntza-ikaskuntza jardueren aldaketa metodologiko bat ekarri behar du, eskatzen baitu, besteak beste, atazetan oinarrituta erregulariki lan egitea, jakintzak mobilizatu beharreko bitartekotzat hartzea, arazoan ebazpenean edo proiektuen garapenean oinarritutako ikaskuntza modu bat, lankidetzeta eta ekipo lana, ebaluazio era berriak, etab. Hau da, apustu egitea eskatzen du pedagogia esanguratsuago eta metodologia inductiboago, aktiboago eta esperientzialen alde, zeintzuek ikasleen behar eta espektatibetan oinarrituta egongo diren. Izan ere, marko berriaren arabera ikaslea bada bere heltze eta ikaskuntza prozesuen protagonista, prozesu horiek funtsatu behar dira ikasitakoaren gainean ikastean, eginez ikastean eta bizitzarako ikaskuntzak garatzean.

Pedagogia eta metodologia berriek ikerkuntzan oinarrituta egon behar dute, ebidentziek bermatuak, ekipo gaituek lideratuak eta adituek lagunduak, proposamen horien ezarpenak irakasleei segurtasuna emateaz gainera, berma dezaten oinarritzko hezkuntza-kompetentzien garapena modu zuzenean bideratzen dela. Bestalde, ikastetxea ikaskuntzarako gune pribilegiatua izateaz gainera, hezkuntza-komunitatea bera ere bada, berez eraginkorra eta eraldatzeko gaitasun propioarekin. Hori horrela, autonomia eta lidergo pedagogiko partekatua baliatuz, ikastetxea erreferente nagusia izan behar da bere testuinguru soziokulturalerako aiposmenak diren eraldaketak garatzeko.

Ikastetxeen pedagogia berrien inguruko ekimenak zuzenduta egongo dira ikaskuntza-ingurune eta antolamendu-marko berrien sorkuntza progresiboak sustetzera; bi arlo horiei erreparatuz ekin ahal izango zaie, besteak beste, ikasgelen eta ikastetxeen antolamenduaren transformazioari, ikasleen taldekatze berriei, edo gainerako gizarte-eragileen esku hartzeari hezkuntzan.



Berrikuntzaren dimentsio pedagogikoaren osagarri, ikastetxean lekutzen diren beste ekimen guztiak ere espiritu berritzaileak gidatu behar ditu, eta oso bereziki azpiegitura eta instalazioen diseinua, eraikuntza eta egokitzapenak eta espazioen antolakuntza, hezkuntza-eremuak gero eta hobekiago izanik ikaskuntza bera ere hobetze aldera.

Hezkuntza Administrazioak, bere aldetik, lagundu egingo du ikastetxe guztietan esperientzia berritzaileak abia daitezen, hezkuntza-eraldaketa dinamizatu eta hazia izan daitezen ikastetxe berritzailetan bilakatzeko. Bestalde, bere laguntza-zerbitzuen bitartez, bermatu egin beharko ditu zuzendaritzen aholkularitza eta akonpainamendua, irakasleen eguneratze pedagogikoa, eta ikastetxeen barruko eta euren arteko praktika bikainen hedapena eta elkartrukea.

Azkenik, Administrazioak bere aitorpena egin behar die proiektu sendoak dituzten ikastetxeei, eta bere laguntza eta lankidetzak eskaini arrazoi desberdinak direla-eta eragozpen gehiago eta abiapuntu zailagoa dituzten ikastetxeei.

### **1.3.3 Teknologia berriak hobeto ikasteko eta ezagutzaren gizarte interkonektatu eta kohesionatu baterako hiritar kompetenteak garatzeko.**

Globalizazioaren eta iraultza teknologikoaren ondorioz, geroz eta askotarikoagoa den eta interkonektatuagoa dagoen mundu bat sortu da, non ezagutzan oinarritutako gizartea lehentasun handiko helburu bilakatu den. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak, beste teknologia berriekin batera, instrumentu boteretsuak dira ezagutza hori sustatzeko. Eskolak, ondorioz, teknologia horiek guztiak —digitalak eta sortzen ari direnak— barneratu eta erabili behar ditu gizarte berrirako hiritar kompetenteak prestatu ahal izateko.

Digitalizazioaren hezkuntza-integrazioa kompetentzia digitalaren curriculum-planteamendu baten bidez gauzatzen da, zeina berariazko ezagutza-arloa izateaz gain, ikasteko eta ezagutza eraikitzeke funtsezko erreminta gisa hartu behar den. Gauzak horrela, digitalizazioak lagundu egin behar du ikaskuntza-prozesuen transformazioan zenbait arrazoi direla medio, alegia, prozesuak pertsonalizatzeko posibilitatea, muga espazio-denboralak desagertzea, ikasleak eginkizun aktiboagoa eta bere autonomia garatzeko aukerak, hala nola irakaslea ikaskuntzaren “bideratzaile” bilakatzekoak. Halaber, teknologia modernoaren barneindar ikaragarria baliatu beharra dago ikaskuntza zabalago eta sakonagoak garatzeko, eta arreta hobea eta egokituagoa emateko behar gehiago dituztenei. Digitalizazioa, beraz, bitarteko gisa ulertu behar dugu helburu gisa bainoago, esan bezala, bitarteko eraginkorra baita hezkuntza hobea erdiesteko bai maila pertsonalean zein sozialean, hots, hezkuntza efizienteagoa, inklusiboagoa eta ekitatiboagoa.

Lorpen hori atzematea xede, ikastetxeek eta Administrazioak berak ere digitalki kompetente bilakatzeko joan behar dute, ezagutzaren gizartearen beharretara egokituak.



Ikastetxeen eraldatze digitalean asko aurreratu bada ere azken urteotan, ez da izan modu bateratuan. Ondorioz, beharrezkoa da Administrazioaren aldetik, haratago joan nahi duen eta osotasuneko planteamendua egiten duen digitalizazio-estrategia bat bultzatzea. Estrategia berri horrek, ikastetxe bakoitzaren kompetentzia digitalari egokituz, ekipamendu eta konektibitate eredu berriak eskainiko ditu; irakasleen kompetentzia digitala bermatuko du; digitalizazio-esperientzien garapena eta hedapena eta hezkuntza-baliabide digitalen ekoizpena, erabilpena eta kudeaketa irekia sustatuko ditu, euskarazkoena bereziki; azkenik, identitate digitala garatuko du, hezkuntza-komunitatearentzako sarbide, komunikazio, harreman eta elkarlanerako giltz bilakatuz.

#### **1.3.4 Sistemaren egituren eta antolamenduaren egokitzapena hezkuntzaren paradigma berrira.**

Paradigma berriak, bestalde, hezkuntza-etapen eguneratze eta egokitzea eskatzen digu, hezkuntza-zikloek currikulum-progresio naturala eta koherentea eskaini eta ikasleen bilakaeraren erreferentziak marka ditzaten, ikaskuntza-prozesua oztopa lezaketen hesiak sekula izan gabe.

Helburu hori lortze aldera, ad intra, ziklo eta etapen arteko koordinazioa eta diziplinarteko lana sustatu beharra dago, kompetentzien garapenean jarraipena bermatzeko. Ad extra, bestalde, koordinazio hobea landu beharra dago etapa ezberdinak eskaintzen dituzten gertuko ikastetxeen artean, horiek sarritan ikasle batzuen heziketa-ibilbide naturala osatzen baitute. Administrazioak aintzat hartu behar du maila desberdinen arteko koordinazio horren garrantzia, ikasle guztiei prestakuntza bikain baterako aukera berdinak eskaintzeko, bakoitzak egiten duen ibilbideari erreparatu beharrik gabe.

Oro har, etapa, ziklo eta ibilbideen berrantolamenduari ekin behar zaio, gure gizartearen errealitate eta espektatibei hobeto erantzungo dien hezkuntza-planteamendu bat sustatu eta ikasleen kompetentzien garapena erraz dezaten. Zentzu horretan, eta 2 urteko ia haur guztiak eskolaratuta daudela kontuan hartuz, hezkuntza arloko aurrerapentzat jotzen da 2 urteko maila hori Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3-5 urte) barne hartzea.

Beste berrikuntza-ildo bat sistemaren egitura eta antolamenduari dagokionean, heziketa-ibilbide osoa eskainiko duten titulartasun publikoko ikastetxe integralen konfigurazioan aurrera egitea litzateke, etapa batetik bestera igarotzea erraztu eta heziketa-proiektu bateratu bat eskaintzeko asmoz.

Pertsona helduen hezkuntza eszenatoki berri batean lekututa dago gaur egun, gizarte-errealitate berri batean eta behar berriak dituelarik. Hortaz, ezinbestekoa da helduaroko hezkuntza-etapa berrikustea helburuei, egiturari eta prestakuntza-





eskaintzari dagokienez, bere izaera arautua indartu eta hezkuntza-eredu pedagogiko berrira egokitzeko.

Azkenik, atzeraezina da hezkuntza-sistemaren laguntza-zerbitzuen funtzioen, egituren, antolamenduaren eta artikulazioaren berrazterketa, bai eta Administrazioarena berarena ere hezkuntzaren kudeaketaren arloari dagokionean, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari zerbitzu moderno eta eraginkorra eskaini ahal izateko.

Administrazioak, sistemaren maila eta arlo guztien modernizazioan lidergoa eta erantzukizuna bere gain hartuz, konpromiso argia adierazi behar du bitartekoak jarri, prozesuak erraztu eta eginkizun horretan laguntzeko, hezkuntza-komunitateak ere bere aldetik, erantzunkidetasunean eta berari dagokion heinean egin beharko duen bezala.



## 2. BIZIKIDETZA

---

### 2.1 ABIAPUNTUA

Gure gizartean, gero eta aniztasun handiagoa dago, arrazoi etniko, linguistiko, kultural, ekonomikoengatik, besteak beste, eta horrek eragin nabarmena du ikastetxeetan, eta, ikasle bakoitzak duen ikaskuntza-ahalmena garatzen dela bermatzeko, aldaketak egiteko beharra planteatzen du araudiari, antolamenduari eta metodologiari dagokienez.

Dibertsitatea ikasgeletan presente dagoen errealitate bat da, eta eman beharreko arreta, hezkuntza-premia pertsonaletara zuzendu behar da; alegia, ikasle bakoitzak, bere berezitasuna eta dibertsitatea dela-eta, guztiz garatzeko behar duen horretara. Dibertsitatea, beraz, errealitate bat da eta horrekin bizitzen ikasi behar dugu, bai eskolaren barruan bai kanpoan. Horretarako, gainditu beharreko oztopo bat ez, baizik eta sustatu beharreko balio bat dela ulertzea garrantzitsua da, dibertsitatean baitago elkarrekiko errespetua, lankidetzeta eta ikaskuntza partekatua.

Gure hezkuntza-sistemak elkarbizitza positiboaren paradigman oinarritutako inklusio-gaitasunagatik erreferente izatea du xede. Gure komunitatea eskola inklusiboaren alde aspalditik egiten ari den apustuari jarraituz, hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikoak dituzten ikasleei zuzendutako programa edo baliabide espezifikoak garatu dira. Honako ikasle hauei zuzenduak, zehazki: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, ikasle etorkinei, gutxiengo etnikoetakoei, ikaskuntza-zailtasunekin loturiko premiak dituzten ikasleei, gaitasun handikoei eta generoaren edo sexu-dibertsitatearen ikuspegitik baztertuak izateko arriskuan daudenei. Talde horiek guztiak barnean hartzeak ez du beti eragin ikuspegi transbertsal eta integral bat izatea. Ikastetxean elkarbizitza sustatzeko garatu diren neurriak ere ugariak dira, baina, praktikan, elkarbizitza gatazkak konpontzearekin lotu da nagusiki, eta horrek esku-hartze partzialak egiteko arriskua dakar.

Planteamentu inklusiboarekin bat etorritz, hauek dira hezkuntza-sistema baten ekitatean eragin handiena duten faktoreak: eskolatzea zabala eta baldintza berdinetan izatea eta jatorriarekin loturiko desberdintasunak orekatzeko eta eskola-porrota edo eskola-uzte goiztiarra murrizteko neurriak hartzea. Egun, Europako eskola-uzte goiztiarraren tasa baxuenetarikoa lortu dugu, % 7,3koa<sup>1</sup>; bai eta goi-mailako ikasketak egin dituzten ikasleen tasa altuenetarikoa ere, % 57,3koa<sup>2</sup>. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoa da eskolatze goiztiarrean tasa altuenetarikoa duen autonomia-

---

<sup>1</sup> 2017ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-uzte tasa % 7,3koa izan zen, hau da, duela urtebete baino 2,3 puntu txikiagoa, Hezkuntza Ministerioak Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) oinarrituta jakinarazi duenez.

<sup>2</sup> Goi-mailako ikasketak egin dituzten 25 eta 34 urte arteko biztanleen tasa % 58,3koa da; Europar Batasunean (EB-28), aldiz, % 39,1ekoa da, eta Espainian, % 41ekoa. 2016ko datuak dira, Hezkuntza Ministerioak Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) oinarrituta emandakoak.



erkidegoa. Haurren % 92,9, 2 urterekin eskolatzen dira, eta % 99,4, 3 urterekin<sup>3</sup>. Horrez gain, esku-hartze goiztiarra 2 eta 5 urte arteko haurrekin egiten da, kasuen % 100ean.

Hala eta guztiz ere, ahultasun handiena duten ikasleen eskolatzeari erreparatuz gero, zenbait desoreka ikusiko ditugu<sup>4</sup>; izan ere, ikastetxe batzuetan –publikoak, gehienak–, estatus sozioekonomiko eta kultural apala duten eta/edo atzerritarrak diren ikasleen proportzioa handiagoa da. ISEK (indize sozioekonomiko eta kulturala) apaleko ikasle asko izateak –beste aldagai batzuen artean– ikaskuntza-ingurunean eta irakaskuntzaren kalitatean eragiten du, 2015eko Ebaluazio Diagnostikokoaren emaitzekin interpretatu daitekeen moduan<sup>5</sup>. Eskolaren eraginkortasuna neurtzen duten beste ikerketa batzuek<sup>6</sup>, ordea, ISEKen, etorkinen tasaren edo kurtsoa errepikatzen duten ikasleen tasaren eragina mugatzen dute, itxuraz eraginkortasun altuko eta baxuko ikastetxeen arteko desberdintasunak testuinguruaren ezaugarrien ondoriozkoak soilik ez direla frogatuta.

Azken finean, ekitatearekin eta kohesio sozialarekin dugun konpromisoari jarraiki eta hezkuntzak orekatzeko eta eraldatzeko ahalmena duela sinetsita, gure sistemak honako erronka hau du: elkarbizitza bultzatzea, guztiontzako kalitatezko hezkuntza-aukerak bermatuta.

## 2.2 HELBURU NAGUSIA

Elkarbizitzarako eta ekitaterako esparru komuna zehaztea; dibertsitatearen balioa indartu, eskolatzeko ez-diskriminatzailea bermatu eta erantzunkidetasunean oinarrituz hezkuntza-erantzunak eta -praktikak ikasle bakoitzaren ikaskuntza-premietara eta ahalmenara egokituko dituen esparru bat.

## 2.3 OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

### 2.3.1 Elkarbizitza, ikastetxe nabarraren ardatza, gizarte kohesionatua izateko.

Euskal hezkuntza-sistemak proposatzen du elkarbizitza izatea –zentzurik zabalenean– inklusioa eta ekitatea bultzatzeko hezkuntza-politika eta -programen ardatz, berezko

<sup>3</sup> 2015-2016ko ikasturteko eskolatzeari buruzko datuak, EUSTATEk emanak.

<sup>4</sup> 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko ISEK indizearen inguruko datuak kontuan izanik, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 141 ikastetxetan dute ISEK baxua: 122 publikotan eta 19 itunpekotan. DBHko 2. mailaren kasuan, ISEK baxua duten 112 ikastetxetik 73 publikoak dira, eta 39, itunpekoak.

<sup>5</sup> 2015eko Ebaluazio Diagnostikoak, ebaluatutako 5 kompetentzietan, desberdintasun handia erakusten du ISEK altuko eta baxuko ikastetxeen artean; DBHko 2. mailan, desberdintasuna nabarmenagoa da –gaztelanian gutxienez 27 punturen aldea eta ingelesean gehienez 50 punturena– Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino –gaztelanian gutxienez 19 punturen aldea eta ingelesean 43 punturena–.

<sup>6</sup> «Eskolaren eraginkortasuna Euskadiko ikastetxeetan» izeneko txostena, ISEIk eta EHUK egina eta 2015ean argitaratua.



identitate-ikur gisa. Horrek berekin dakar, ezinbestean, dibertsitatea aitortzea, hezkuntzaren arloko mota guztietako diskriminazioak edo bazterketak gainditzea, ikasle-taldeak kohesionatzea eta pertsona orori ikasteko aukera berdinak bermatzea.

Elkarbizitzaren kontzeptua ardatz izateak esan nahi du garrantzia ematea pertsona bakoitzaren izaerari eta ikaskideekin eta irakasleekin ikaskuntzako espazio kolektiboetan parte hartuz gehiago eta hobeto ikasi ahal izateko moduari. Ikaskuntzaren inguruko ikerketa eta teoria ugarik adierazten dute hori pertsonen arteko elkarrekintzaren bidez gertatzen dela; pertsonen rol erabakigarria dutela, ikaskuntzaren bitartekari gisa, ikasle guztien inklusioa lortzeko funtsezko laguntza baitira.

Elkarbizitza lortzeko –beste pertsona batzuekin bizitzeko gaitasun gisa, ezaugarri kultural desberdinak dituzten pertsonen arteko elkarrekintza gisa eta bizitzako esperientzia partekatzeko aukera gisa definituta– inklusioa bermatzea dakar –inklusiotzat hau ulertuta: gizarteak, eta derrigorrezko hezkuntzak, horren parte gisa, ikastetxeetan ikasle guztien presentzia, ikaskuntza eta parte-hartzea mugatzen dituzten oztopoak ezabatzen saiatuz dibertsitateari erantzuteko modua–. Lotura hori indartzen den heinean, dibertsitatearen balioan oinarrituz aukera-berdintasuna bermatzen duten ikaskuntza-espazioak eta -praktikak bultzatuko dira.

### **2.3.2 Askotariko ikasleentzat eta berezitasun propioak dituzten ikastetxeentzat kalitatezko hezkuntza-aukerak bermatuko dituzten esku-hartze eredu integral eta malguak.**

Bizikidetza ardatz hartzen duen hezkuntza-sistema batek, pausoak eman behar ditu esku-hartze eredu integralagoetarantz; ikasle guztien inklusioa bermatuz eta ekitate-printzipioak aintzat hartuz, komunitate osoaren erantzunkidetasunean oinarrituta, gure ikastetxeetan eta gizartean beharrezko elkarbizitza eta kohesio soziala bultzatuko dituzten esku-hartze ereduetarantz. Pertsona bakoitzari hezteko eta ikasteko aukera eraginkorrek eskainiko dizkion sistema bat bermatzea da helburua. Horretarako, guztientzako ikaskuntza-baldintza, -prozesu eta -emaitza ekitatiboak eta kalitatezkoak sustatu behar dira.

Esku-hartze eredu integral eta jasangarriagoetarantzko pausoak emanez gero, dibertsitateak

– edozein motatakoa izanik ere: jatorria, gaitasuna, generoa edo maila sozioekonomikoa – sortutako beharrei arreta partziala ematea eragotziko da. Ildo horretan, curriculum moldagarri bat sortzeko eta ikasgelaren barruan laguntza normalizatuak diseinatu eta ezartzeak lagundu egiten du gaitasunei, jatorriari edo testuinguru sozioekonomiko eta kulturalari loturiko zailtasunak konpentsatzeko ekintza indartzaileak eraginkorrek izan daitezzen.



Ikastetxearen ikuspegi globaletik ikasleek zeharkako konpetentziak garatzea – bereziki, elkarbizitzaren konpetentzia – barnean hartzen duen irakaskuntza-ikaskuntza eredu bat izateak gero eta anitzagoa den ikasleriari arreta hobea emateko esparru integratzaileagoak eta malguagoak bultzatzen ditu. Hezkuntza-komunitateak irakaskuntza-ikaskuntzako metodologia aktibo eta pertsonalizatuagoak ezarri ahal izateko hezkuntza-testuinguru berritzaileak garatzen dituen heinean, eraginkorragoa izango da. Horretarako, hezkuntza-administrazioak berrikuntza pedagogikoa eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza bultzatuko ditu.

Neurrien eraginkortasuna, hein handi batean, irakasle-taldearen araberakoa ere bada; izan ere, horiei dagokie esku-hartze global eta koherenteagoa eta hezkuntza-erantzun integralagoak eta malguagoak lortzeko erabakiak koordinatzea. Hortaz, bai hasierako eta etengabeko prestakuntzak –beharrezkoak diren trebetasun eta tresnak emateko– bai hautaketak –sisteman pertsona prestatuak eta motibatuak sartzeko– lehentasuna dute.

Era berean, beren hezkuntza-proiektuen bidez ikastetxeek premia espezifikoak dituzten ikasleentzat hartzen dituzten neurri espezifikoek artikulazioa optimizatu eta hobetu behar da. Horretarako, ikastetxeetan neurri handian edo txikian esku hartzen duten erakundeek eta profesionalen artean –gizarte-integrazioko teknikariak, gizarte-langileak, terapeutak, osasun-arloko profesionalak eta irakasle-taldeak– koordinazioa hobea izatea bultzatu behar da.

Bestalde, ikastetxeetako errealitateak askotarikoak direla aintzat hartuz, ikastetxe bakoitzaren premia espezifikoak hobeto identifikatzeko edo atzemateko tresnak diseinatu behar dira –esaterako, hezkuntza-premien indizea–, eta, ondoren, erantzun malguago eta egokituagoak ematen saiatu.

Ildo horretan, hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikoak dituzten ikasleek ehuneko handia duten ikastetxeek honako neurri osagarri hauek garatzeko eskatu ahalko dute, besteak beste: metodologia egokitzeko hezkuntza-berrikuntzako proiektuak garatzea; hainbat profil sozioekonomiko eta kulturaletako ikasleak erakartzeko proiektuak diseinatzea; laguntza-baliabide osagarriak ematea; prestakuntza handia eta beharrezko gaitasun pertsonalak dituzten irakasleak sustatzeko eta erakartzeko neurriak, baita haien egonkortasuna bultzatzeko neurriak ere; hezkuntza-komunitatea –famiak, bereziki– sentsibilizatzeko eta konprometitzeko ekimenak; gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko neurriak, eta bai eskola-orduetan bai ordu horietatik kanpo gizarte-hezkuntza proiektuak jorratzeko udal- eta auzo-ekimenak.



### **2.3.3 Ikasleak eskolan sartu ahal izatea eta onartuak izatea bermatzeko mekanismoak, eskolatzea inklusibo eta orekatuagoa izan dadin eta elkarbizitza eta kohesio sozial handiagoak bultzatu ditzan.**

Testuinguru heterogeneoetan, ikaskuntza aberastu egiten da; hala ere, ikastetxeetan ikasleak onartu eta sarbidea emateari dagokionez, dibertsitatea era orekatuan kudeatu behar da.

Ikastetxearen hautaketa arautzea funtsezko elementua da familia guztiei eskolatzearen une edo testuinguru guztietan baldintza berdinak bermatzeko eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko. Zenbait alderdik arreta berezia eskatzen dute. Adibidez: derrigorrezko hezkuntzan, kalitatezko heziketa baldintza berdinetan izateko eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzea; atzematen diren premiekin bat datorren planifikazioa, ikastetxeen zonifikazioa; familiek jasotzen duten informazioa; ikastetxe guztiek jatorriz atzerritarrak diren ikasleak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak onartzea eta hartzea; eskolatuta dauden ikasleen mugikortasun-efektua; eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren esparruan hizkuntza-ereduak eta erlijioak duten eragina.

Ikastetxean sartze eta onarpen prozesuak honako printzipio hauetan oinarritu behar du: ekitatea, hezkuntza-inklusioa, kohesio sozialaren sustapena eta hezkuntza-eskaintzaren barruan ikastetxea hautatzeko eskubidea. Ildo horretan, administrazioak onarpen-prozesuetan printzipio hauek era egokian aplikatzen direla eta legea betetzen dela zaindu behar du eta berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak era egokian eta orekatuan eskolatzea bultzatu behar du. Administrazioak helburu hori bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak –Onarpena Bermatzeko Batzordea, esaterako– ezarriko ditu. Eskolatzean oreka hobea izateko egokia izanez gero, lurralde mailako eskolatze-bulegoak osatu ahalko dira, informazioa kudeatzeko, laguntzeko eta eskaerak izapidetzeko. Ikastetxeen osaketan desoreka handiak izanez gero –nagusiki, gertuko eremuetan badaude–, neurriak hartuko dira, doikuntzakoak, konpentsatzekoak edo arautzekoak, desoreka horiek zuzentzeko.

### **2.3.4 Familien eta hezkuntza-eragileen erantzunkidetasuna, elkarbizitza bultzatzeko funtsezkoa.**

Haurraren Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren arabera –1989koa–, aitari, amari edo tutoreei dagokie, nagusiki, adingabeen garapenerako behar diren bizitza-baldintzak emateko oinarritzko erantzukizuna, haien ahalmenen eta baliabide ekonomikoen barruan, eta, subsidiarioki gizarteari, administrazio publikoen bidez.

Hezkuntzan itxaropen handia duten, ikastetxearen hezkuntza-proiektua partekatzen duten eta harreman positiboen giroa sortzen duten familiek seme-alaben hezkuntza-prozesuaren arrakasta ahalbidetzen dute. Ondorioz, alde batetik, komenigarria da



irakasleak eta ikastetxeetako zuzendaritzak areago sentsibilizatzea familiek eta komunitateak hezkuntza-prozesuan parte hartzeak dituen onuren inguruan. Beste alde batetik, familiak gehiago konprometitzea bultzatzeko prestakuntza eman behar da. Prestakuntza-mota horretan, orain arte, gurasoen elkarteek protagonismo handia izan dute, eta, ikastetxearen beraren testuinguruarekin gehiago lotutako prestakuntza-ekimenekin osatu behar da; esaterako, «familientzako eskolekin» –irakasleek zein irakasle ez diren langileek edo elkarte edo erakundeetako ordezkariak dinamizatuak–. Ekimen horietan, komenigarria izango litzateke elkarbizitzaren esparruarekin eta dibertsitateari eman beharreko erantzunarekin loturiko gaiak lantzea.

Hezkuntza-prozesuan, ikastetxeak familiekin ez ezik, hezkuntza-eragile guztiekin ere partekatzen du bere funtzioa, «hezkuntza-komunitatearen» planteamenduaren barruan, zeinak hezkuntza-prozesu formal, ez-formal eta informalak bildu eta erlazionatzen dituen. Eraginkorra izateko, ikastetxearen eta haren ingurunearen arteko lotura indartu behar da. Horretarako, komunikatzeko eta parte hartzeko bideak sortu eta ikastetxearen, komunitatearen eta familien arteko lankidetzaprogramak bultzatu behar dira.

Era berean, egun eskolan islatzen diren premia sozial edo sanitarioei loturiko askotariko egoerak kudeatzeko erakundearteko espazioak eta lankidetzaprogramak – esaterako, gizarte-hezkuntzako mahaiak– sortzeko neurriak hartu behar dira, udalei, foru-aldundiei eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari – familiaren, haurtzaroren eta babes sozialaren arloetan – dagozkien eskumenetan eta Osasun Sailari osasunaren arloan dagozkion eskumenean koordinazioa eta erantzunkidetasuna indartzeko.



### 3. HIZKUNTZAK

---

#### 3.1 ABIAPUNTUA

Eskolak euskararen normalizazioari begira erdietsi dituen lorpenak ukaezinak dira. Euskarak 1981tik hona irabazi dituen 300.000 mila hiztun baino gehiagotik bi heren eskolari esker lortu dira. Gaur egun 16-24 adin-tartearen biztanleriaren %71,4 euskalduna da (VI Inkesta soziolinguistikoa<sup>7</sup>), 1991an zegoen kopuruaren (%25) ia halako hiru eta EUSTATen aurreikuspenen arabera, 2036an 24 urtetik beherakoen artean %83,4ra igoko da euskaldunen kopurua (Baztarrika eta Erize 2016<sup>8</sup>).

EAEn 2016-17 ikasturtean haur hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzan dauden ikasle guztietatik ia %95 D eta B ereduetan eskolaratuta egon dira (Eusko Jaurlaritza 2016). Lorpen hau hezkuntza-komunitate osoaren ahaleginari esker gertatu eta bereziki nabarmentzekoak dira gurasoek egin duten hautu sendoa eta irakasleek egindako ahalegina. Izan ere, duela 40 urte prozesua hasi zenean %8 bat baino ez zen gai euskaraz irakasteko, gaur egun %93 da (Eusko Jaurlaritza 2017<sup>9</sup>).

Baina lorpen hauek etorkizuneko eskolak kontuan hartu beharreko aldaketak ekarri ditu, zehazki hiztun-profiletan, familia-transmisioaren bidez euskara ikasi dutenen artean eta, bereziki, familiarik kanpo ikasi dutenen artean. Izan ere, azken hiztun horien presentzia asko handitu da: 16-24 adin-tartean hiztun berriak, euskara familiarik kanpo ikasi dutenak, euskaldun guztien %55,7 dira (VI Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta beste 2016), eta kasu askotan euskara oso gutxi erabiltzen den testuinguruan bizi dira. Arestian aipatutako aurreikuspenen arabera (Baztarrika eta Erize 2016), hogeita urte barru 20 urte baino gazteagoen %90 baino gehiago euskaldunak izango dira baina eurentariko asko izango dira gaztelaniaz hobeto moldatuko diren elebidunak, ulermen gaitasun bikaina baina ekoizpen abilezia mugatuak izango dituztenak, eta testuinguru ez hain euskaldunetan biziko direnak eta, beraz, eskolatik kanpo euskara erabiltzeko aukera gutxi izan dezaketenak, gaur egungo joerak egonkortuz gero. Euskal Eskolak erronka garrantzitsua dauka ikasle profil anitzak artatzeko, euskararen gaitasun egokia bermatzeko eta ikasleak euskararen hiztun aktibo bihurtzen laguntzeko, gizarte osoaren laguntzarekin.

---

<sup>7</sup> Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen erakunde publikoa-Office public de la langue basque (2016). *VI Inkesta Soziolinguistikoa Euskal Autonomia Erkidegoan*. Argitaratu gabeko dokumentua (2016/10/14). [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI\\_Inkesta\\_Soziolinguistikoa\\_EAE.pdf?1476439692](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EAE.pdf?1476439692)

<sup>8</sup> Baztarrika, P. eta Erize, X. (2016). Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraukortasuna edo «dabilan harriari etzaika goroldiorik lotzen». Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta\\_hemendik/eu\\_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer\\_2016-05-03.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf)

<sup>9</sup> Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila.





Baina euskararena ez da gure eskolak daukan erronka bakarra. Gaur egungo mundu globalak beste hizkuntza batzuk ikastea eta erabiltzeko gai izatea eskatzen du; bereziki nazioarteko komunikazioari begira ingelesa beharrezkoa da. Bestalde, gure eskoletan azken urteotan dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzakotzat hartu behar da: alde batetik, hezkuntza -sistema eleanitz honetan etorri berriei harrera egokia egiteko eta, bestetik, hizkuntza eta kultura horiek gure hezkuntza-sisteman integratzeko.

## 3.2 HELBURU NAGUSIA

Gure hezkuntza-sistema eleanitza, kalitatezkoa, ekitatiboa, inklusiboa eta berritzailea izan behar da, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialetan gaitasun aurreratua eta atzerritar hizkuntzan maila ertaina bermatzen duena, ikasle guztien, abiapuntua edozein dela ere, garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionala lortzeko asmoz.

## 3.3 OINARRIZKO PRINTZPIOAK

### 3.3.1 EAEko hezkuntza sistema: euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleanitza.

EAEko hezkuntza sistema euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleanitz bezala definitu daiteke. Europako Parlamentuak bultzatutako Eleanitzasunerako hiru hizkuntzen estrategiari jarraitzen dio<sup>10</sup>. Beste leku batzuetan estrategia hori *ama-hizkuntza + bi atzerritar hizkuntza* ereduaren bidez planteatu bada ere, EAEn, bi hizkuntza ofizial eta euretariko bat normalizazio bidean dagoen hizkuntza gutxitua izanik, eredia *bi hizkuntza ofizialak + atzerritar hizkuntza* bat bezala planteatu da.

Eskola eleanitza ez da soilik hizkuntza ezberdinak irakasten dituen eskola baizik eta ikasleen gaitasun eleanitzaren garapena bilatzen duen hizkuntza guztietako proiektu integratzailea, hizkuntza baten ikasitakoak beste hizkuntza baten ikaskuntzari laguntzeko. Gainera, arestian aipaturiko eskola inklusiboaren ikuspegiak EAetik kanpo datozen familiek dakarten hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren tratamendu egokia eskatzen du.

Aipaturiko hiru hizkuntzak kurrikularrak izateak ez du esan nahi trataera bera izan behar dutenik, baizik eta euren planifikazio kurrikularrak zein estra-kurrikularrak bakoitzaren funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharko dituela.

<sup>10</sup> Europako Parlamentua (2006). *Informe sobre una nueva estrategia marco para el multilingüismo* (2006/2083(INI)). In: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+REPORT+A6-2006-0372+0+DOC+XML+V0//ES>



Euskararen kasuan normalizazio-bidean dagoen hizkuntza gutxitua dela aintzakotzat hartu beharko da eta zentzu horretan, euskara ikasteaz gain, oso garrantzitsua da ikasleek konpetentzia soziolinguistikoa garatzea, hizkuntzen erabilera arduratsua egin dezaten.

Ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza gaitasun-mailei dagokienez, ezinbestekoa da horiek zehaztea, helburuak ezarri eta emaitzetan oinarritutako plangintzak diseinatu ahal izateko. Euskara ardatz duen sistema eleanitza proposatzen den neurrian, honako gaitasun-mailak ezarriko dira helmuga bezala: bi hizkuntza ofizialetan Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 LH amaitzerakoan eta B2 DBH amaitzerakoan, Europako herrialdeetan ohikoa denez; atzerritar hizkuntzan, A2 eta B1 maila hurrenez hurren. Egindako ebaluazioetan ikusi da eskuratutako euskara-maila ez dela beti horretara heltzen eta horren arrazoiak aztertuko dira, ikastetxeak hobekuntzen bidez maila horietara heldu daitezten neurriak hartu ditzagun. Hobetze bidean ikerketa eta berrikuntza ezinbestekoak dira eta planak, epeak eta baliabideak zehazterakoan, ikastetxeen abiapuntuak eta egoerak oso ezberdinak direla kontuan hartu beharko da.

### **3.3.2 Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua eta ikuspegi metodologikoak oinarritzeko euskara ardatz duen sistema eleanitza bultzatzeko.**

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, hizkuntza konpetentzia, diziplinarteko edo diziplina baitako konpetentzia izateaz gain, oinarritzeko zeharkonpetentzia bat da – komunikaziorako konpetentzia hain zuzen ere –, eta beraz, hezkuntza-ardatz edo zutabe nagusien arabera sailkatu behar da. Horrek eskatzen du hizkuntzen garapenari arreta berezia ematea eta erabaki eraginkorrak hartzea.

Hezkuntza sistema eleanitza den honetan ezinbestekoa da hizkuntzen planifikazioa modu bateratuan egitea eta hizkuntza ezberdineko irakasleek talde-lanean jardutea. Jadanik curriculumean hizkuntzen trataera–integratua eta integrala ageri da baina indarrean ipintzeko zailtasunak daude eta oraindik formazioa behar-beharrezkoa da. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP) ikastetxeko hizkuntza guztien garapena zehazten duen dokumentua den neurrian, tresna paregabea da hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta eurekiko jarrera positiboak planifikatzeko, beti ere testuinguru soziolinguistikoa eta irakasleen eta ikasleen profilak kontuan hartuta. Tresna hau sendotu behar dugu, izan ere, IHPren helburu nagusia ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzean lortu behar duten hizkuntza-gaitasuna lortzea da. Beraz, IHPak gure ikastetxeetan berriak ez badira ere, benetan eraginkorrak izan daitezten baliabideak eskaini behar dira eta hobekuntzari begirako etengabeko jarraipena egin behar zaie.

Bestalde, hizkuntzak irakasteko eta lortu nahi ditugun gaitasun-mailetara heltzeko behar-beharrezkoa da ikuspegi metodologiko eraginkorra hartzea. Emaitzek erakusten dute, salbuespenak salbuespen, hizkuntzak ez direla ondo ikasten. Benetako ikuspegi



komunikatiboa ezarri behar da hizkuntza-didaktikan: hizkuntzak erabiltzeko ikasten dira eta erabiliz ikasten dira. Ikuspegi hau aspaldi sartu omen zen gure sisteman baina gramatika hutsean oinarritutako metodologia tradizionala erabiltzeko inertzia handia dago oraindik. Pentsa liteke metodologia aktiboagoak, idatzizko eta ahozko ekoizpenean oinarritutakoak, erabilia gaitasunean aurrerapen nabarmena egongo zela. Zalantzarik gabe hezkuntza sistemen eredu pedagogikoak eragin zuzena dauka ikasgelan ematen diren praktika komunikatibo motetan; bereziki bermatu behar da ahozkoari behar besteko arreta ipintzea.

Ildo horretatik, konpetentzia komunikatiboa lantzearen ardura hizkuntza-irakasleetatik harago doala badakigu. Hala, hizkuntza-irakasgaietan ez ezik, gainerako arloetan ere hizkuntzak kudeatzeko eta arloen bidez komunikazio gaitasuna – euskararena, bereziki – lantzeko helburuak fintzea, planifikatzea eta metodologia berriak txertatzea ezinbesteko izango da. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren helburuetan ere erronka hau zehaztea beharrezkoa izango da, baita horretarako tresnak -planifikazioa eta irakasleen prestakuntza, besteak beste- jartzea ere.

Euskararen irakaskuntzari dagokionez, arestian esan den bezala, euskararen gaitasunaren garapenean lorpenak handiak izanagatik, azken ebaluazioek ikasleen maila pixka bat jaitsi dela erakutsi dute. Horren arrazoiak aztertu behar dira eta azaldutakoaren arabera egokituko dira hartuko diren neurriak; ikasleek euskara maila hobetzen eta gaitasun komunikatibo osoagoa lor dezaten bermatzeko neurriak, alegia.

Ingelesaren irakaskuntzari dagokionez, beharrezkoa da hizkuntza horren irakaste-moduan aldaketa sakonak egitea, emaitzak derrigorrezko eta derrigorrezko-ondoko eskolatze-aldian eskaintzen zaion ordu-kopuruarekin bat ez baitatuz. Ezarritako helburuak bete daitezten beharrezkoa da hizkuntza horren planteamendua berriro egitea; gainera, familiek ere eskatu dute. Hobekuntzetako bat ikasgelan erabiltzen diren metodologiaren ildotik etor liteke, aipatu den ikuspegi komunikatiboaren ildotik; ingelesa-irakasle espezialisten gaitasun-maila ere hobetu beharko litzateke. Halaber, programen diseinuan ingelesaren irakaskuntza nazioarteko komunikaziorako eta ezagutzen trukatzeko daukan funtzioaren testuinguruan oinarritu behar da.

Azken urteotan egin den aldaketa positiboetako bat ingelesa irakas-hizkuntza bezala erabiltzea izan da -azken urteetan igotzen doa: %12,6 2012-13 ikasturtean eta %13,1 2014-15 ikasturtean-, eta bide horretatik jarraitzea gomendagarria da. Alabaina, zaindu beharreko bi arlo daude: batetik, programa horien kalitatea, eta segurtatu behar da zehaztasunez eta baliabide nahikorekin planifikatzen direla; bestetik, ingelesari ematen zaion lekua ikastetxeko hizkuntza guztien planifikazioaren barruan egin eta arreta berezia izan behar da euskararen ditugun helburuak arriskuan jarri ez daitezten, batez ere testuinguru soziolinguistiko ez oso euskaldunetan.



Gaztelaniari dagokionez, hizkuntza honen garapena ezin eredutan, ezta D ereduan ere, ez dagoela arriskuan erakutsi dute ebaluazioek behin eta berriro. Alabaina, arestian oro har esan den bezala, metodologia komunikatiboagoak, aktiboagoak eta gramatika testuinguruan irakasten dutenak bultzatu behar dira, hizkuntza honetako erregistro akademiko eta formalak gara daitezen bermatzeko.

### **3.3.3 Irakasleriaren prestakuntza ezinbestekoa hizkuntzen irakaskuntza praktika berrietan sakontzeko.**

Irakasleen prestakuntza estrategikoa da hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko. Sistema eleanitz batean irakasleak hizkuntzan gaituta ez egotea pentsaezina da. Euskararen kasuan gaitasun-mailako datuak onak izanik ere, uste dugu zer hobetu badagoela, eta ingelesaren kasuan urrun gaude ingelesaren eta ingeles bidezko irakaskuntza handitzeko beharrezkoa den giza baliabide nahikoa izatetik.

Hizkuntza curricularretan irakasleek daukaten gaitasuna hobetzen joateko neurriak jarriko dira abian ondoko irizpideetan oinarrituta:

- Euskara-mailari dagokionez, azken hamarkadotan irakasleen gaitasunean aurrerapen handia egon da -gaur %93k 2. hizkuntza eskakizuna edo gehiago egiaztatu du- eta, duda barik, kolektibo honek egin dituen ahaleginak aintzat hartu behar dira. Hori esanik ere, irakasle asko euren euskara-abileziak direla eta eroso ez daudela jakina da, batez ere lanetik kanpo euskara erabiltzeko aukera gutxi dituztenen kasuan. Auzi honi helduko diogu eta behar duten irakasleei laguntza eskainiko diegu C1+ maila eta bereziki ahozkoan abilezia bikaina lortu dezaten.
- Ingeles eta beste hizkuntzetako irakaslea izateko maila momentu honetan B2n dago ezarrita. Gaur egungo gaitasun datuak ikusita -B2 maila %14 batek baino ez dauka, eta C1 edo C2 bakarrik sare publikoko %8,1k eta itunpeko sareko %5,4k-, epe ertaineko planifikazioari begira irakasleek C1 maila izatea ipini beharko litzateke helburu estrategiko bezala<sup>11</sup>.
- Hezkuntza sistemara sartuko diren irakasle berrien profila zehaztuko da, ezaugarri berriak dituen gizarte honetan ikasle konpetenteak hezteko gaitasunak ere askotarikoak izan behar dutelako.

Hizkuntza-gaitasunaz gain, oro har hizkuntzei dagozkien erronkei aurre-egiteko formazio berezia beharko dela aurreikusi behar da. Alde batetik, eskola eleanitz – eta ez hizkuntza ezberdinak irakasten diren eskola – planteatzeak kontzeptu-aldaketa dakar, eta irakasleekin berariazko lana egitea eskatzen du. Bestetik, helburuak

<sup>11</sup> Europako herrialdeen artean ingelesez irakasteko gutxiengo maila B2 da kasu batzuetan eta C1 beste kasuetan (Europako Kontseilua (2012). *Key Data on Teaching Languages at School in Europe* (Eurydice Report, 17th edn., 91-92 orr.)).



lortzeko eta irakaskuntza-praktika berriak indarrean ipintzeko berariazko formazioa beharrezkoa da, ondokoetan: metodologian eta metodologia eraginkortasunez aplikatzeko moduan, diseinu kurrikularrean eta proiektu eleanitzak aurrera eramateko diziplinarteko eta hizkuntzarteko lanean. Azkenik, ikasle etorkinei eskolara eta ikasgelara harrera egiteak ere prestakuntza egokia eskatzen du, baita hizkuntza eta kultura horiek ikasgelan errespetu eta aberastasunaren ikuspegitik integratzeko ere. Horrez gain, gure sistemaren ardatza normaltze prozesuan dagoen hizkuntza gutxitua dela kontuan harturik, ezinbestekoa da irakasleek prestakuntza izatea kompetentzia soziolinguistikoan. Hau dena eraginkorra izateko material didaktikoa aztertu eta egokitu beharko da.

### **3.3.4 Gizartearen ardura konpartitua euskara ardatz duen eleaniztasuna sendotzeko oinarria.**

Gazteak euskalduntzen hezkuntza-sistemak izan dituen lorpenak handiak izanagatik, hizkuntza gaitasun-maila eta erabilerari dagokienez, ikasleen datuek argi utzi dute eskolak bakarrik ezin duela. Eskolako lana beste eragile sozialek egiten duten lanarekin modu osagarrian indartu behar da eta horretarako eskola, familiak eta gizartearen arteko harremanak zaindu, sendotu eta elikatu behar dira. Arrakastatsuak diren hezkuntza-sistemetan eskola, familiak eta komunitatea elkarrekin, talde bakar bezala, lan egiten dute. Hizkuntzen arloan ere garrantzitsua da proiektua konpartitzea eta denon inplikazioa lortzea.

Hizkuntzak, hizkuntza guztiak, aberastasun komun gisa ulertzeko eta errespetatzeko jarrera landu behar da hezkuntza komunitatean. Horretarako, familien eta eskola komunitatearen kideen hizkuntza desberdinek lekua izan behar dute eskolan, inguruko elementu kultural aberasgarri hauek ezagutarazteko eta balioesteko.

Familiei dagokienez, hautu sendoa egin dute euren seme-alabak euskaraz ere hezteko baina beharrezkoa da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua familiek ere babestea eta seme-alaben garapen eleanitzaren aspektu guztietan inplikatzeko. Horrek ondo eta egoki informatuta egotea eskatzen du eta garapen horretako protagonista sentitzea, egiten dituzten proposamenen eta hartzen dituzten erabakien bidez.

Eskolaz kanpoko jarduerari eta aisialdiari dagokienez, azken aldiari egin diren euskara babesteko ekimen ugariak eskolan ematen den hizkuntza garapena osatzeko zeinen garrantzitsuak diren erakutsi dute, adibidez ahozko hizkuntza, lagun arteko erregistroa garatzeko; gainera, jarduera ludiko eta ikasleentzat esanguratsuak direnen bidez euskaraz gizarte-sareak errazteko oso baliagarriak dira. Hori dela eta, komenigarria litzateke eskola, eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdiko eragileak elkarlanean aritzea. Elkarlan hau ildo estrategiko bezala planifikatzea eta lantzea sustatuko da, tokian-tokiko ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz. Esate baterako, jatorri ezberdinetako



ikasleak dauden testuinguruetan, beraien ama-hizkuntzak sustatzen dituzten ekimenak antolatzea komenigarria izango litzateke.

Baina hizkuntza-garapena ezin da banandu jarreretatik. Azken urteotan gazte euskaldun askoren artean euskararekiko kontzientzia apala dagoela antzeman dute ikerketek. Euskara oraindik ere hizkuntza gutxitua, babestu beharrekoa dela konturatzea eta horrek dakartzan ondorioez hausnartzea behar-beharrezkoa da. Bestalde, euskara ikasi duten gazte askok ez dutela garatzen hizkuntzarekiko atxikimendua ikusi da. Ikasleek euskara hautatzen erraztuko lukeen jarrera mesedegilea eta eleaniztasuna eta hizkuntzen arteko bizikidetzarekiko jarrera positiboak garatu beharko lituzkete. Gizarte-eragile guztiek modu koordinatuan eskolaren alde lan eginda hizkuntza gutxituak bere normalizazioan aurrerapenak egin ditzake, eta horrela, benetako eleaniztasuna lortzen aurrerapausoak emango ditugu.

Erronka kolektibo honetan, Ikasle, eskola eta gurasoen arteko triangeluak modu eraginkorrean funtzionatzeko azpimarratzekoa da guraso elkarteek egiten duten ahalegina eta lana. Horregatik, elkarte horiek dinamikoak izaten jarraitzea ezinbestekoa da hezkuntza sistemaren hobekuntza iraunkorrerako.



## 4. EBALUAZIOA

---

### 4.1 ABIAPUNTUA

Behar-beharrezkoa da hezkuntza-prozesuaren eta emaitzen garapenean eragiten duten elementuak ebaluatzea, baita horien gaineko ikerketa egitea ere, hezkuntza-sistema ongi oinarrituta berritu eta etengabe hobetuko badugu. Hori dela eta, euskal hezkuntza-sistemaren lehentasunetako bat da ebaluazio-sistema zorrotza, fidagarria, jarraitua eta inguruko erkidego eta herrialdeekin homologagarria edukitzea. Eta sistema horrek, gure hezkuntza-sistemaren berezitasunak aintzat hartuta, egoerari eta hobetu beharreko arloei buruzko analisisia eta datu objektiboak eskaini behar ditu.

Euskal hezkuntza-sistema ebaluatzeko berezko eredu bat bultzatzea justifikatzen dute honako arrazoi hauek, besteak beste:

- Hezkuntza-premien etengabeko bilakaera: gero eta mundu globalizatu eta teknologikoago batean bizi gara, elkarri lotutako mundu batean, etengabe eraldatzen eta aberasten ari diren nortasunak sortzen dituzten biztanle-mugimendu zabalak dituena; horrelakoek aberastu egiten gaituzte gizarte gisa, zalantzarik gabe, baina zaildu ere egiten dute hezkuntza-egitatea, eta erronka berriak sortzen dituzte.
- Gure hezkuntza-sistemaren berezko ezaugarriak: bi sare eta hiru hizkuntza-eredutan antolatutako dagoen sistema dugu, eta haren bilakaera, familien eskariz, oso ezberdina izan da urteetan zehar. Horrez gain, egoera soziolinguistiko ezberdinak dituzten bi hezkuntza ofizial daude gure erkidegoan, eta horrek eragin handia du euskal hezkuntzan. Aldi berean, gure sistemak hezkuntza-adierazle onak ditu eskolatzeari, inbertsioari, egokitasunari edo eskola uzteari dagokienez, eta nazioarteko sistema ekitatiboetako bat izatea du ezaugarri.
- Hobetu behar duten hezkuntza-emaitzak: ebaluatutako kompetentzien hasierako mailetan ikasleek dituzten ehunekoak txikiagoak dira inguruko herrialde eta erkidegoetan baino, baina aldi berean nabarmen txikiagoak ere badira maila aurreratuetan dauden ikasleen ehunekoak. Sistemak hobetzeko tarte duela adierazi dute azken ebaluazioek. Hezkuntza-emaitzak hobetuko badira, informazioa eskuratu eta aztertu beharra dago, hori nola lor daitekeen eta beste sistema batzuek lortzea nola erdietsi duten jakiteko.
- Gure hezkuntzaren egoera ezagutzeko bitartekoak eta tresnak eduki behar ditugu, jardunbide egokienak eta hobetu beharreko arloak zehazteko, eta ikastetxeei berritzeko eta hezkuntza-premia berrietara egokitzeko behar diren argibideak emateko; era horretan, lortutako ebidentzia eta emaitzetan oinarritutako erabakiak hartu ahal izan daitezten.



- Gardentasunarekiko konpromisoa eta hezkuntzaren kudeaketan parte-hartze demokratikoa sustatzea.

Gaur egun, Europako hezkuntza-sistema guztiak kompetentzien arabera ikasteko eta ebaluatzeko planteamenduari hoberen egokitzen zaizkion hezkuntza-erantzunak aurkitu nahian ari dira, Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan Europan elkarlanean aritzeko 2020rako esparruan ezarritako lehentasunezko ekintzei jarraikiz. Azken hiru bosturteko hauetan EAEko hezkuntza-sistemak pixkanaka aurrera egin du ebaluazioaren kultura, oro har, eta ikasleen kompetentzien araberako ebaluazioan, bereziki.

Ikastetxeek eginiko ikasleen barneko ebaluazioa da sistema hobetzeko prozesu oro oinarritzeko giltza: banakakoa da, jarraitua, ikasleak curriculumeko arlo guztietan oinarritzeko kompetentzietan lortutako aurrerapena kontuan hartzen du, izaera hezigarria du, eta irakasteko zein ikasteko prozesuak hobetzeko tresna bat da. Ikasturte amaieran, azken ebaluazioaren txostenean, oinarritzeko gaitasunen eskuratzemaila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko erabakia jakinarazten dira.

Azken alderdi horrek nabarmen bereizten ditu ikastetxeek beraiek egindako ikasleen ikastetxeen barneko ebaluazioak eta Euskadin 2003tik aurrera egindako nazioarteko ebaluazioak<sup>12</sup> zein kanpoko diagnostikorako ebaluazioak<sup>13</sup>. Kanpoko ebaluazioek, barnekoek ez bezala, ez dute ondorio akademikorik mailaz igotzeko edo titulua eskuratzeko. Kanpoko ebaluazioen bereizgarria da neurtzeko parametro bera erabiltzen dutela ikastetxe guztietarako. Horri esker haien emaitzak antzeko ezaugarri sozioekonomiko eta soziokulturalak dituzten beste ikastetxe batzuenekin, edota hezkuntza-eredu bera duten zentroenekin, alderatu daitezke. EAEn ez dira kanpoko ebaluazioen emaitzak argitaratzen, ikastetxeak sailkatzea eragozteko, eta ikasleak ere ezin dira inola ere hautatu. Nolanahi ere, 2012tik aurrera, kanpoko ebaluazioen balio soziala galtzea eragin dute askotariko jarduerak. Kanpoko ebaluazioaren egokitasuna eta baliagarritasuna arriskuan jarri da nolabait.

Kanpoko ebaluazioek, dituzten berezko ezaugarriengatik, mugak dituzte ikasleen irteera-profilean jasotako kompetentzia guztien ebaluazioari heltzeko<sup>14</sup>. Hala eta guztiz ere, eztabaidaren eta barneko gogoetaren funtsezko osagai bihurtu dira, eta irakasteko

<sup>12</sup> Euskadin PISAko ebaluazioak egin dira, hiru urtean behin, 2003tik aurrera (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015), ikastetxeen lagin handi bat, haien titulartasunaren eta hizkuntza-ereduen adierazgarri, barne hartuta.

<sup>13</sup> Izaera zentsala duten Ebaluazio Diagnostikoak egin dira ikastetxe guztietan, talde guztietako ikasle guztiekin, etapa erdian, LHko 4. eta DBHko 2.ean, 2009, 2010, 2011, 2013, 2015 eta 2017an.

<sup>14</sup> Ebaluazio Diagnostikoek 236/2015 Dekretuan zehaztutako gaitasunetako batzuk baino ez dituzte ebaluatzen; honako hauek: matematika-gaitasuna; euskara, gaztelania eta ingelesezko hizkuntza-komunikazioko gaitasuna, zientzia-gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna, eta badaude gaitasun batzuk kideen arteko ebaluazioaren bidez, behaketaren bidez edota kanpoko ebaluazioen berezko mugen ondorioz aplikatu ezin diren beste tresna batzuen bidez baino ebaluatu ezin direnak.





zein ikasteko prozesuen azterketa kritikoa egiteko ez ezik, hobetzeko planak etengabe hobetzeko aukera ere ematen dute.

Jada egindako bidetik abiatuta, etorkizuneko hainbat erronka ditugu honako hauei dagokienez: gaitasunetan oinarritutako ikaste-irakaste prozesuen zein gaitasunen araberako ebaluazioaren garapen praktikoa; ebaluazioen emaitzetan oinarritutako hobetzeko neurriak definitzea; ebaluazioak arrazionalizatu eta antolatzea, eta kanpoko ebaluazioei buruzko diskurtso sozial positiboa sortzea, besteak beste. Horren guztiaren eraginez, administrazioak behar diren irizpideak ezarri eta lehenetsi behar ditu, eta ikastetxeei are gehiago lagundu behar die planteamendu berri horiek ikasgeletan gauzatzeko orduan.

Halaber, zenbait azterlanen arabera, zuzendaritzek eginkizun erabakigarria dute eskola-emaitzen hobekuntzan. Hori horrela izanik, garrantzi berezia du zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioak, EAEn duela ia hamar urtetik ezarri denak. Zuzendaritza-funtzioaren garapena ezagutzea du xedetzat, eta hura hobeto gauzatzeko bultzatu eta orientatzea, baita kargua nola betetzen duten baloratzea ere. Haren mugak gorabehera –sistemaren zati batera bakarrik iristen da, funtsean ikastetxearen proiektuaren definizioa eta plangintza ditu ardatz eta ikastetxeko zuzendaria baino ez da ebaluatzen, eta izaera nagusiki hezigarria du–, eredu hori erreferentziatzen hartzen da Europar<sup>15</sup> eta, gainera, bereziki baliotsua izan da irakasleen ebaluaziorako eredu bat diseinatzeko lanari ekiteko orduan. Gaur gaurkoz, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa oso mugatua da, ikastetxe publikoak bakarrik hartzen dituelako barnean eta, horien barruan, praktikaldian dauden irakasleak soilik. Esperientzia horri esker, halere, aurreratzen ari gara gainerako irakasle eta ikastetxeetara hedatzeko moduko esku-hartze sistemiko bati era koherente eta mailakatu batez ekiteko behar diren ebaluazioko tresnak eta prozedurak garatzeko lanean, eta hori da sistemaren erronketako bat etorkizun hurbilean.

Azkenik, ikastetxeek zein hezkuntza-administrazioak beste zerbitzu batzuk ere badituzte, eta horiek, oro har, ez dute ebaluazio sistematikorik, haietako batzuek badituzten kalitatea ziurtatu eta egiaztatze prozesuak alde batera utzita.

Sistemaren ebaluazioari dagokionez, ISEIk (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea), EAeko administrazioari eta hezkuntza-sistemari laguntzeko zerbitzu gisa, gure sistemaren lerro estrategikoekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketak egiten ditu -hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta, eleaniztasuna, hezkuntza-bikaintasuna eta digitalizazioa, besteak beste-, eta, horrez gain, berezko adierazle-eredu bat ere kudeatzen du gure sistemaren baliabideen, prozesuen eta emaitzen berri emateko. Eredu hori berrikusi eta gure sistemaren beharretara eta ikastetxeenetara egokitu ere egin behar da.

<sup>15</sup> Euskadiko Hezkuntzako Ikuskaritzak zuzendu du Europako Evaluation Of School Leadership And Teaching Practice izeneko proiektua, Erasmus+ programaren barruan (2015-1-ES01-KA201-015972).



Laburbilduz, datu ugari eta informazio garrantzitsua ditugu, eta ebidentziak oinarri dituen erabakiak hartzeko prozesuan txertatu behar ditugu horiek, jardunbide egokienak identifikatzeko oinarri gisa erabil ditzagun. Jardunbide horiek, bestalde, tresna egokien bitartez, ikastetxeei eta sistema osoari jakinarazi behar zaizkie eta bataren zein bestearen hobekuntzaren alde jarri behar dira.

## 4.2 HELBURU NAGUSIA

Ebaluatzeko eta ikertzeko berezko sistema bat eraikitzea. Sistema horrek, pilatutako esperientzian oinarrituta, batetik, gure hezkuntza-sistemaren eremu edo elementu ezberdinak modu integratu batez aztertzeko gauza izan behar du, eta erabakiak hartzeko prozesua informazioz hornitu behar du, erronka espezifikoiei bere berezitasunak aintzat hartuta erantzuteko. Eta, bestetik, hezkuntza-emaitzak hobetzen laguntzen duen tresna ere bilakatu behar da.

## 4.3 OINARRIZKO PRINTZPIOAK

### 4.3.1 Gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzeko berezko ebaluazio-esparrua.

Gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzeko berezko ebaluazio-esparru integral batek honako printzipio hauek izan behar ditu ezaugarri eta gidari:

- Ebaluazioa hezitzailea, ikastetxeen eta ikasleen berrikuntzara eta hobekuntzara bideratzea.
- Ebaluazioa prozesu zaila eta faktore anitzekoa izanda, irakasteko zein ikasteko prozesua osatzen duten elementu guztiak – ikasleak, irakasleak, curriculumak, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, erkidegoa eta hezkuntza-sistema – barnean hartzen dituen prozesu integraltzat hartzea.
- Autoebaluazioaren eta kanpoko ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatu:
  - Ikastetxe guztiek ikasleen konpetentzien ikaskuntzaren eta garapenaren gainean eginiko barneko ebaluazioak kontuan hartu behar du, etengabe eta banan-banan, ikasle bakoitzak curriculumeko arlo guztietan oinarrizko gaitasunekin lotuta zer aurrerapen izan duen, norberaren abiapuntua eta ezaugarriak edozein izanik ere. Horrela, bada, hobetzeko prozesu orok oinarri hartzen dituen funtsezko elementuetako bat bihurtzen da ebaluazioa, hala irakasteko prozesuei nola ikasteko prozesuei dagokienez.
  - Kanpoko ebaluazioak ez dira kontrol-elementutzat hartu behar, ikastetxeetarako erreferentzia objektibo eta komuntzat baizik, hobetzea eta berritzea beste helbururik gabe. Horri esker, izan ere, nork bere emaitzak



aldera ditzake antzeko ezaugarriak dituzten beste ikastetxe batzuek dituztenekin, eta emaitza onenak lortzen dituztenak aintzat hartuta irakasteko zein ikasteko prozesuak berrikus ditzakete eta haiekin ikas dezakete.

- Ebaluatzeko zein ikertzeko eremuak eta hobetzeko proposamenak lehenestea sistema-mailan honako eremu hauetan: curriculumaren eta metodologiaren garapena; antolamendua eta funtzionamendua; erkidego-eremua; irakasle eta zuzendaritza taldearen garapen profesionala, eta ikerketetan atzemandako jardunbide egokiak.
- Ebaluazioak eta ikerketak, berezko prozedurak eta tresnak diseinatu eta ezartzea gure sistemaren hezkuntza-pedagogiako ereduarekin eta berezitasunekin bat etorritz.
- Kanpoko ebaluazioak antolatzea eta arrazionalizatzea haietako bakoitzaren helburuak, irismena, emaitzak eta espero izandako entregagaiak argi eta garbi ezarriz eta barneko ebaluazioen osagarri direla zainduz.
- Euskal hezkuntza-sistemaren ebaluazio- eta ikerkuntza-adierazleak, irizpideak eta metodoak homologatzea erkidego-mailako, Estatu-mailako eta atzerriko antzeko erakundeek erabilitakoekin.
- Ebaluazio prozesuan, gardentasuna eta parte-hartzea bermatzea:
  - Hezkuntza-sistemak erronka handiak dituenez, ezinbestekoa zaio informazio publikoa eta gardena jasotzea ikastetxeetatik, haiei emandako baliabideak nola erabiltzen diren jakiteko, bai eta haiekin lortutako emaitzak baloratzeko ere, kontuan hartuz inguruko gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta hizkuntzaren eragina.
  - Bermatu egin behar da, halaber, prozedura egokien bitartez, hezkuntza-komunitateak parte hartzen duela ikastetxeen barneko eta kanpoko ebaluazioak diseinatu, prestatu eta aplikatzeko fasean, bai eta horiek aztertzeko eta, batez ere, egokiak diren hobetzeko konpromisoak zehaztu eta hartzeko prozesuan ere.

#### **4.3.2 Ikasleen gaitasunen araberako ebaluazioa, irakasteko eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak sustatzera bideraturik, ikasle bakoitzaren ahalik eta hezkuntza-garapen handiena lortzeko.**

Ikasleen ebaluazioa, gure sistemaren ardatz nagusia, curriculumaren gainontzeko osagaietatik -oinarrizko gaitasunak, helburuak, edukiak eta metodologia- bereizi ezin den curriculum-osagai bat da, eta zentzua izango du haiekin koherentea den neurrian, hau da, gaitasunaren araberako ebaluazioa bada eta erreferentziatzen ikasleek etapa bakoitzaren amaieran zer irteera-profil duten hartzen badu. Ebaluazio hori, ikasleen



aniztasunari, ezaugarriei eta berezko premiei egokiturik, irakasteko eta ikasteko ereduaren hobekuntzak sustatzera bideraturik egon behar da, eta ikasle guzti-guztien ahalik eta hezkuntza-garapen handiena laguntzea izan behar du azken xedetzat.

Ikasleen irteera-profila ikasleek lortu beharreko oinarrizko gaitasunen isla da. Hala, hori da hezkuntza-zentroak bere hezkuntza-proiektuaren ezaugarriak zehazteko aintzat hartu beharreko ardatza. Halaber, profilak berak ardaztu behar ditu hobekuntza-planak, Oinarrizko Hezkuntzaren etapen programazioa, garapena eta ebaluazioa eta irakasleen prestakuntzarako plangintza. Hori horrela, zehaztaperen eta koherentzia handiagoa ematea erabaki da; era horretan, jada zehaztuta dauden irizpide eta lorpen-adierazleetatik harago, zer oinarrizko elementua lehenetsi behar diren zehaztu ahal izateko aukera izan dezagun, ikasleen ikuspegitik betiere, haiek izango baitira curriculum osoaren erreferentziako elementua.

Halaber, gaur-gaurkoz, halakotzat taxututako konpetentzien arabeko ebaluazio-eredu integralik ezean, konpetentzien arabeko ikuspegia pixkanaka sartu behar dugu irakasteko eta ikasteko prozesuak diziplinen eta edukien arabera aldatu eta berrikusteko orduan. Konpetentzien arabeko ereduak garatzeak, diziplinarteko lana eta ebaluazioa eskatzen dute; ikasleak kalifikatzeko tresnak eta prozedurak berrikusi; erreferentziako ikastetxe pilotuetan antolamendu- eta metodologia-aldaketak bultzatu; haien garapena ebaluatu eta esperientziak trukatu. Eta horretarako, ikastetxeei etengabeko aholkularitza eta laguntza eman behar zaie, baita berriazko prestakuntza ere irakasleei.

Era berean, lehenetsia du ikasleen kanpoko ebaluazioak arrazionalizatzeko ahalegina egiteak, ikastetxeen beraien barneko ebaluazioen osagarri ez ezik kanpoko ebaluazio propioen --zentsu bidezko etapa-erdiko ebaluazioak eta lagin bidezko etapa-amaierako irteera-profilaren ebaluazioak- osagarri ere izan daitezten. Haien aldizkakotasuna argitu eta arautu beharra dago, epe ertainean, ikastetxeek era normalizatu batez txertatu ahal izan ditzaten.

#### **4.3.3 Zuzendaritza-funtzioaren eta irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, lanbide-jarduera hobetzera bideraturik.**

Ikastetxeen autonomiaren alde egitekotan, beren proiektu propioak garatzeko gaitasuna aitortu behar zaie, emaitzen erantzunkizunar begira betiere, ikasleen hezkuntza-arrakasta handitzeko konpromisoaren barruan. Horretarako funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldea, hark egiten baititu pedagogia eta kudeaketa mailako lider-lanak. Azterlan eta ikerketa ugariaren iritziz, funtsezko bi aldagai daude ikastetxeen eta hezkuntza-sistemen hezkuntza-kalitatea hobetzeko garaiak: irakaskuntza-lana eta zuzendaritza-funtzioa. Haien eragina erabakigarria da bai ikasgelaren kudeaketa eta antolamenduan, bai irakasteko eta ikasteko prozesuen eraginkortasunean.



Zuzendaritza-taldeen funtzioa eta garapena gure erkidegoko kezken erdigunean izan dira aspalditik. Horregatik, 2008tik, ikastetxe publikoen zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko plan bat ezarri dugu. Plan hori indartu beharra dago, lidergo sendoak garatzeko, zuzendaritza egonkor, kualifikatu eta kontsolidatuak ahalbidetzeko, zuzendaritza-zeregina sustatzeko eta zuzendaritza kualifikatuak, lidergo pedagogikoa ardatz dutenak, hautaketa errazteko. Ebaluatzeko prozedura berrikusi eta sinplifikatzea eskatzen du horrek, horren barruan zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeari buruzko araudia eguneratzea zein lagundu eta jarraitzeko zereginak zehaztea hartuta.

Zuzendaritzarekin batera, adierazi bezala, irakasleak dira irakasteko eta ikasteko prozesuen kalitatean eragin handien duten beste aldagaietako bat; hori dela eta, gomendagarria da irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko ereduari aurrera egitea, bi helburu hauek buruan beti: haien jarduna hobetzeko arloak zehaztea eta haien garapen profesionalak zer laguntza edo neurri behar dituen programatzea. Esparru pedagogiko berriak proposatzen duen irakasleen gaitasun-profilak oinarrizko erreferentzia gisa balio behar du ebaluazio-prozesu horretarako, baita, orobat, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioarekin zerikusia duten dimentsioak, irizpideak, adierazleak, ebidentzia-iturriak eta jardunbide egokiak identifikatzeko ere. Ebaluazio hori autoebaluazioan eta berdinkideen arteko koebaluazioan oinarritu behar da funtsezko tresna gisa; izaera hezigarri eta orientagarria eduki behar du, eta sistema osora hedatzeko modukoa izan behar da.

#### **4.3.4 Ikastetxeen eta sistemaren ebaluazioa sistema autonomo eta eraginkorrago batean aurrera egiteko.**

Ikastetxeen autonomia progresiboki handitzen ari den testuinguru batean, ikastetxeen eraginkortasuna ebaluatzeko eredu bat garatu behar da. Eredu horrek hobetzeko izaera izan behar du hezkuntzaren eta pedagogiaren ikuspegitik, bai eta kudeaketaren eta antolamenduaren erantzukizunaren ikuspegitik ere, administrazioarekin eta hezkuntza-komunitatearekin hartzen diren konpromisoen aurrean. Kontuak eman beharra dago; batetik, ikastetxeek hobetzeko prozesuak aurrera eramanez ahal izateko informazioa eduki behar dutelako, eta, bestetik, gizarte demokratiko batek funts publikoekin ordaindutako hezkuntzaren egoera ezagutzeko eskubidea duelako.

Ikastetxeak ebaluatzeko ereduak kudeaketa aurreratuko autodiagnostiko-tresnak garatu behar ditu, horiei esker pedagogiaren eta curriculumaren koordinazioan hobekuntzak lortu ahal izateko, irakaskuntza eta lidergoko jardunbide egokiak identifikatzeko, eta, berdinkideen arteko ikaskuntzaren bidez, esperientziak partekatu ahal izateko mekanismo eraginkorrak ezartzeko, gainerako ikastetxeetara horiek zabaltzeko ahal izan daitezkeen. Era horretako ebaluazioak familiek eta hezkuntza-komunitateak parte eta esku har dezaten lagundu behar du, eta haren emaitzak zein ikaskuntzak hezkuntza-sistema eta ikastetxearen proiektuak hobetzeko plan batean sartu behar dira.



Kudeaketa aurreratuko autodiagnostiko-tresnen garapenak balio behar du, halaber, ikastetxeen gainerako zerbitzuak eta irakaskuntzaz kanpoko profesionalak, zein hezkuntza-administrazioaren laguntza zerbitzuak ebaluatzeko, horrelakoek gaur-gaurkoz ez baitute ebaluazio sistematikorik.

Emaitza onenak dituzten hezkuntza-sistemek ezaugarri izaten dute, bestalde, sistemaren adierazle eta elementu nagusiak aldi behin ebaluatzea, hobetzeko arloak zehazteko barneko eta kanpoko ebaluazioak erabiltzea, eta lortutako ebidentzietan oinarritzea hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko. Ildo horretatik, gure adierazle-sistema eguneratu behar dugu, eta hori Europako adierazle-sistemekin bat etorri egin behar dugu. Gainera, erabakiak hartzeko orduan informazioa izan dezaten, gomendagarria da ikastetxe-mailako adierazle orokorrak are gehiago zehaztu eta egokitzeko ahalegina egitea, baliagarri izan dakien irakasteko eta ikasteko prozesuen kudeaketan zein antolamendu-arloko bestelako alderdien azterketan.



## 5. IKASTETXEEN AUTONOMIA

---

### 5.1 ABIAPUNTUA

Ikastetxeen autonomiaren alde eginez gero hezkuntza-politikak arautzeko eta gobernatzeko, proiektu propioak garatzeko gaitasuna aitortu behar zaie ezinbestean ikastetxeei, inguruabarren arabera eta emaitzei begira betiere, ikasleen hezkuntza-arrakasta eta gizarte-kohesioa handitzeko konpromisoaren barruan.

Hori horrela, *Euskal Eskola Publikoaren* otsailaren 19ko 1/1993 Legearen V. tituluak ikastetxe publikoen autonomia arautzen du, eta oreka bilatzen saiatzen da ikastetxeek ahalik eta autonomiarik handiena izan dezaten eta, aldi berean, Administrazioak haiek koordinatu eta kontrolatu ahal izan ditzan. Autonomia hori gorpuzteko, ikastetxeek beren hezkuntza-, curriculum- eta kudeaketa-proiektuak gauzatzeko eta antolaketeta eta funtzionamendu-arautegia garatzeko bidea izan behar dute.

Esan liteke ikastetxe publikoek, oro har, gero eta autonomia pedagogiko handiagoa baliatu dutela beren hezkuntza-proiektua, curriculum-proiektua eta gelako programazioa egiteko eta aplikatzeko, dagokion testuingurura egokituz eta ikasleen aniztasuna kontuan hartuz. Alabaina, ikastetxeen hezkuntza-proiektuak eta horien ebaluazio-mekanismoak sendotzeak aukera emango du egiazko autonomiarako bidean prestakuntzaren eta laguntzaren eskutik aurrera egiteko.

Kudeaketako eta antolaketako autonomiaren esparruan, nabarmentzekoa da 2005ean abian jarritako Kalitatea Hezkuntzan programak ekarritako aurrerapena. Arlo guztietako kalitatea kudeatzeko programa horrekin pedagogía-, ikasketa- eta antolaketa-kudeaketa egiaztapena lortu zuten ikastetxe batzuek. Hala ere, bigarren urratsa ez zen sekula iritsi, eta ez zen laguntza-deialdirik antolatu Kalitatea Hezkuntzan programaren arabera egiaztatutako ikastetxeei autonomia gehiago emateko, zuzendaritza konprometitu eta egonkorak zituzten arren.

Gerora, 2015 urtean, araudiak autonomia nabarmentzen zuen, hezkuntza-eredu berria ezartzeko ekintza-ildo lehenetsietako bat zen aldetik. Horretarako, zenbait hezkuntza-sistemak nazioartean izandako esperientzietan oinarritzen zen, autonomia hezkuntza-kalitatean eragin handia duen faktore bat dela egiaztatu zuten eta.

Hala, hobekuntza-bide horretan lagungarri izango da hezkuntza-emaitzak hobetzeko proiektuak garatzea, proiektu horiek bideragarri egiteko autonomia-marjinak eskainita, baita emaitzei begira jardutea ere. Era berean, ingurunearekin lotura zuzenagoa izateko bide ematen du autonomiak, bai, halaber, gizartearen parte-hartzea sustatzeko, behar pedagogikoei eraginkortasun handiagoz erantzuteko, aniztasunean oinarrituta kudeatzeko, hezkuntza-kalitatea zein -ekitatea hobetzeko, eta, hezkuntza-komunitatea ahaldunduz du, oro har, eta, zehazki, profesionalen taldea.



Ikastetxeko zuzendaritzaren egitekoa funtsezkoa da ikastetxearen beraren proiektuak egoki garatzeko. Ikerlan askok jarri du agerian zuzendaritzen egitekoak berebiziko garrantzia duela eskola-emaitzen hobekuntzan, eragina baitu hala irakasleen motibazioan eta gaitasunean, nola eskolaren ingurunean nahiz kulturean. Horrenbestez, hautagai egokienak hautatzea eta prestatzea eta horien lana aitortzea lehentasun dira gaur egun hezkuntza-politiketan. Aldi berean, zuzendaritza egonkorak izatea ere ezinbestekoa da. Errealitatean, ordea, nekez topa daiteke zuzendaritza egonkorreko ikastetxerik.

Azkenik, autonomia garatzeak aldaketak dakartza hezkuntza-sistemaren gobernuan eta antolaketan; maila anitzeko gobernu eratu behar da, hezkuntza-komunitatea errazago inplika dadin ikastetxeari buruzko erabakietan, eta beste era batera banatu behar dira erantzukizunak hezkuntza-komunitatearen, administrazioaren eta gizartearen artean. Horretarako, autonomia areagotzeaz batera, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea handitu behar da eta kontu emate kultura hedatu.

## 5.2 HELBURU NAGUSIA

Ikastetxeek gero eta autonomia gehiago izatea, hezkuntza-proiektuaren kalitatea handitzeko, ingurunearekiko lotura estutzeko eta gizarte-kohesioari ekarpen handiagoa egiteko, ikastetxea eta bere proiektua sistemaren hobekuntzaren muina izan daitezten.

## 5.3 OINARRIZKO PRINTZPIOAK

### 5.3.1 Ikastetxeen autonomia handitzea, beren hezkuntza-proiektuak hobeto garatzeko.

Ikastetxeen autonomia printzipio honetan oinarritzen da: ikastetxea da hezkuntza-sistema hobetzeko gakoa, hezkuntza-hobekuntzarako faktore adierazgarria. Eta premisa honi heltzen dio: desberdina dena ezin daiteke berdin kudeatu.

Autonomia sustatzeak ikastetxeei erabakimen handiagoa ematea eskatzen du, baita emaitzak lortzeko ardura handiagoz jokatzeko ere, beren hezkuntza-proiektuak garatu ahal izan ditzaten, beren ingurunera egokituta eta berezitasun sozial, geografiko, linguistiko eta kulturalen arabera. Autonomiaren bitartez, irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta erantzukidetasuna areagotu nahi dira.

Horrenbestez, ikastetxeak gaitu behar dira, orain arte, ikastetxe publikoetan administrazioak bakarrik egiten zituen kudeaketako eta antolaketako esparruetan esku hartu dezaten, hala nola funtsen kudeaketan, langileen aukeraketan edo antolaketa-egitura bera ezartzeko gaitasunean.





Horrela, autonomia handituta, nabarmen aldatuko dira administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak. Beraz, funtsezkoa da elkarrekiko konfiantzan eta erantzukidetasunean oinarritutako harremana izatea, eta laguntza-, segimendu- eta ebaluazio-sistemekin indartzea. Horretarako, hezkuntza-administrazioa kudeatzeko egitura apropos bat eraiki liteke, kudeaketa hurbil, bizkor eta eraginkorragoa sustatzeko.

Ikastetxeak berak autonomiaz jokatuko du hezkuntza-proiektuen garapenean, bere berezitasunak kontuan hartuta, proiektuok hezkuntza-kalitatean egiaz eragin dezaten eta, aldi berean, ekitate handiagoa eta aukera-berdintasuna berma ditzaten. Hala, bada, ikastetxeak berak erabakiko du bere autonomia-maila, hiru autonomia-dimentsio nagusietan zer mailatan sakondu nahi duen zehaztuta:

- Autonomia pedagogikoari esker, ikasleen ezaugarrietara eta ikastetxearen hezkuntza-plangintzetara egokitzen diren neurriak har ditzake ikastetxeak. Besteak beste, alderdi hauetan eragin dezake: hezkuntza-eskaintzan, ikasle-taldean antolaketan, curriculumeko jardueretan egiten den denboraren erabileran, ikasteko eremuetan eta baliabideetan, edo, oro har, aurreikusitako ikasgaiena ez den beste ordutegi-antolaketa bat dakarten proiektu didaktikoen garapenean.
- Antolaketako autonomiak gaitasuna ematen die ikastetxeei beren antolaketa-egitura erabakitzeko, betiere zenbait preskripzio errespetatuz. Horrela, beren hezkuntza-proiektuetara ondoen egokitzen den egitura aukeratu dezakete ikastetxeek. Autonomia pedagogikoa eta antolaketako autonomia irizpide honetan oinarritzen da: ikastetxe baten barne-antolaketa hezkuntza-proiektuan ezarritako irizpideen eta helburuen zerbitzura dago, eta ez alderantziz.
- Kudeaketako autonomiak gaitasuna ematen die ikastetxeei, zehazki, zuzendaritzei, hezkuntza-proiektu baten bideragarritasuna baldintzatzen duten funtsezko alderdietan esku hartzeko. Besteak beste, ikastetxeko plantillaren ezaugarriak zehaztu ditzake, eta premisa honetan oinarritzen da: ikastetxe baten hezkuntza-proiektua eraginkorra da, baldin eta proiektu horrekin konpromisoa hartu eta haren beharretara egokitutako profila duten irakasleak baditu. Kudeaketako autonomiak, besteak beste, kudeaketa ekonomikoa eta ikastetxearen gizarte-erabileraren inguruan erabakitzeko gaitasuna ere ekarriko lituzke.

### **5.3.2 Ikastetxeko proiektua eta erantzukidetasun-akordioak, autonomian sakontzeko oinarrizko bitartekoak.**

Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia-maila zein den, zehaztu behar du zer izan asmo duen eta zer egin asmo duen dagokion komunitateari hezkuntza-aukera onenak



eskaintzeko. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan jasota geratuko da zehaztaper hori; alegia, eskola-komunitateak bere aukerak eta hezkuntza-lehentasunak proposatzen dituen agiri nagusian.

Bestalde, ikastetxeen autonomia eraginkorra izateko, tresna baliagarritzat jotzen ditugu ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan oinarritutako erantzukidetasun-akordioak, betiere eskola-arrakasta xede dutenak.

Ikastetxeek autonomia handiagoa izango duten esparru horretan, aldeek hartutako konpromisoak jasoko dituzte erantzukidetasun-akordioek. Batetik, ikastetxeek, ikastetxe-proiektuan jasotako hobekuntza-helburu espezifikoak betetzeko, administrazioaren aurrean hartutako konpromisoak zehaztuko dira. Eta bestetik, administrazioak ikastetxeen aurrean hartutakoak. Hala, administrazioak zein bitarteko eta laguntza emango dituen zehaztuko da, ikastetxeek plan horiek ezarri eta aurreikusitako emaitzak lor ditzaten.

Erantzukidetasun-akordio horien bitartez eraikiko da ikastetxe publikoen autonomia. Administrazioarekin adostuko dira, eta horren mendeko ikastetxe publikoekin, izaera boluntarioa eta mailakatua errespetatuta.

Administrazioak erantzukidetasun-akordioak garatzea lehenetsiko du ingurune ahuletako ikastetxe publikoetan, autonomia garatzeko zailtasun handiagoak dituztenetan. Hala, ikastetxe-proiektu sendoagoak izango dituzte, eta erantzun egokiagoak eman ahalko dizkiete ikasleei eta hezkuntza-komunitateari.

Halaber, erantzukidetasun-akordio espezifikoak adostu ahal izango dira funts publikoz finantzaturako ikastetxe pribatuekin, baldin eta administrazioak interes sozialekotzat jotzen baditu, horien hezkuntza-proiektuaren berezitasunak direla-eta.

Erantzukidetasun-akordio horien bitartez egituratzen den autonomia-garapenak laguntza eta ikuskapen handiagoak izango ditu administrazioaren aldetik, eta horretarako egituraren bat ezar daiteke, kudeaketa errazteko.

Autonomia handiagoak berekin dakar ebaluazio eta kontu emate mekanismoak ezartzea ikastetxeetan, administrazioan eta, oro har, hezkuntza-komunitatean. Hezkuntza-sistemak erronka handiak dituenez, ezinbestekoa zaio informazio publikoa eta gardena jasotzea ikastetxetik, haiei emandako baliabideak nola erabiltzen diren jakiteko, bai eta haiekin lortutako emaitzak balioesteko ere, kontuan hartuz inguruko gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta hizkuntzaren eragina.



### **5.3.3 Eskola-lidergoa eta erantzukidetasun-kultura, funtsezko zutabeak autonomia garatzeko.**

Ikastetxeen autonomiak lidergoa zuzendariaren bidez bultzatzea eskatzen du. Zuzendaritza profesional eta egonkorra, zeinak ikastetxe-proiektu baten arabera jardungo baitu, lehenetsuntzat hartuta lidergo pedagogikoa lortzea eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzea eta hazkunde pertsonala sustatzea. Horretarako, irakasleek ikastetxea hobetzeko helburuetan parte hartu behar dute.

Lidergoa sendo, gaitu eta egonkorra izan dadin, inbertsioak eta, hala dagokienean, egokitzapenak egin behar dira zuzendarien hautapen-prozesuetan, gaikuntzan – esaterako, egiaztapen formal bat ezarriz – eta etengabeko prestakuntzan nahiz laguntzan.

Lidergo partekatu eta erantzukidean oinarritutako ikastetxeen autonomiarako beharrezkoa da zuzendaritza-eginkizunetan hasten diren irakasleak motibatzea, egiten duten lanari aitortza ematea eta haiengan konfiantza izatea. Zuzendaritza-eginkizunak erakargarri egiteko bitartekoak ezarri beharko dira. Hala, prestakuntza handieneko pertsonak, ikastetxearen berezitasunen arabera egokienak, zuzendaritza-postuetara aurkeztu ahal izango dira. Gainera, horien ezagutzak eta trebetasunak garatzea sustatu behar da, lidergo eraginkorra izan dezaten.

Bestalde, zuzendaritzek egiteko nagusiari hel diezaioten —alegia, lidergo pedagogikoari eta irakasleen nahiz gainerako langileen antolaketa eta garapen profesionalari hel diezaioten—, behar duten babesa eskaini behar diete ikastetxeek, kudeaketa eta administrazio-lanak errazteko.

Lidergoa gaituta egotea ezinbestekoa da hezkuntza-komunitatearen inplikazioa lortzeko. Horretarako, erantzukidetasun-kultura handitu behar da irakasleen artean, eta irakasleen arteko elkarlana sustatzeko eta komunitate osoak ikastetxe-proiektuaren alde egiteko esparruak edo mekanismoak bultzatu behar dira.

### **5.3.4 Ikastetxeko Proiektuarekiko hezkuntza-komunitatearen inplikazioa, autonomia ondo garatzeko berme.**

Ikastetxeak lehen aipatutako hiru autonomia horiek eraginkortasunez ezartzeko ezinbestekoak dira eskola-elkartearen eta familien partaidetza eta erantzukidetasuna.

Erakunde-ikuspegitik, ezinbestekoa da erregulazioa eta parte hartzeko jarduerak suspertzea, zinezkoak eta erabilgarriak izan daitezen. Horrela, eskola-elkartearen partaidetza erraztuko da, bai guraso-elkarteen bidez, bai ikasle-elkarteen, klaustroen, eskola-kontseiluen eta bestelakoen bidez.



Ikuspegi sozialago batetik begiratuta, kontuan hartuta konpetentzien arabera hezkuntza-paradigma berriaren arabera hezkuntza guztien ardura dela eta konpetentzia-garapena hezkuntza formalaren bidez lortzen eta ez-formalaren nahiz informalararen bidez osatzen dela, errealitate hori onartzea besterik ez dagokigu, eta hezkuntza-sistema, adiera zabalean, eskola-sistema familiar eta sozialagotzat hartu behar dugu ezinbestez. Egiazko hezkuntza-komunitateak lortzeko bidean aurrera egitea da asmoa, eta, horretarako, ingurune hurbileko eragile guztiek –udalak eta tokiko erakundeak barne– hezkuntzan esku hartzea sustatu eta egituratu behar da, ikastetxeko proiektuaren arabera. Hala, autonomiaren bidez lor daitezkeen abantaileri esker, hezkuntza-zerbitzua hobea izango da.

Hezkuntza-komunitateak inplikazio handiagoa izanda, hezkuntza-erakundeen legezotasuna areagotzeaz gain, aberastu egiten dira ikaskuntza-esperientziak, eta gizarte-kohesioa handitzen. Horretarako, espazio, bitarteko eta metodologia berriak proposatu eta egitasmo berritzaileak garatu behar dira, ikastetxeak autonomia gehiago izanda, ikasleek, familiek eta ingurune hurbilenak ikastetxearen proiektuan parte hartu ahal izan dezaten, horretarako bidea emanez.



## 6. AKORDIOAREN OINARRIAK

---

### MODERNIZAZIOA

1. Irakasle ahaldundu eta prestigiatua behar berriak eta ikasteko era berriak izango dituen ikasleriari erantzuteko.
2. Eraldaketa metodologikoa eta ikaskuntza-ingurune berrien garapena, hezkuntza-paradigma berriari erantzuteko bitartekoak.
3. Teknologia berriak hobeto ikasteko eta ezagutzaren gizarte interkonektatu eta kohesionatu baterako hiritar konpetenteak garatzeko.
4. Sistemaren egiturak eta antolamendua egokitu hezkuntzaren paradigma berrira.

### BIZIKIDETZA

5. Elkarbizitza, ikastetxe nabarraren ardatza, gizarte kohesionatua izateko.
6. Askotariko ikasleentzat eta berezitasun propioak dituzten ikastetxeentzat kalitatezko hezkuntza-aukerak bermatuko dituzten esku-hartze eredu integral eta malguak.
7. Ikasleak eskolan sartu ahal izatea eta onartuak izatea bermatzeko mekanismoak, eskolatzea inklusiboagoa izan dadin eta elkarbizitza eta kohesio sozial handiagoak bultzatu ditzan.
8. Familien eta hezkuntza-eragileen erantzunkidetasuna, elkarbizitza bultzatzeko funtsezkoa.

### HIZKUNTZAK

9. EAEko hezkuntza sistema: euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleanitza.
10. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua eta ikuspegi metodologikoak oinarritzkoak euskara ardatz duen sistema eleanitza bultzatzeko.
11. Irakasleriaren prestakuntza ezinbestekoa irakaskuntza praktika berrietan sakontzeko.
12. Gizartearen ardura konpartitua euskara ardatz duen eleaniztasuna sendotzeko oinarria.

### EBALUAZIOA

13. Gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzeko berezko ebaluazio-esparrua.
14. Ikasleen gaitasunen arabera ebaluazioa, irakasteko eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak sustatzera bideraturik, ikasle bakoitzaren ahalik eta hezkuntza-garapen handiena lortzeko.
15. Zuzendaritza-funtzioaren eta irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, lanbide-jarduera hobetzera bideraturik.
16. Ikastetxeen eta sistemaren ebaluazioa sistema autonomo eta eraginkorrago batean aurrera egiteko.

**IKASTETXEEN AUTONOMIA**

17. Ikastetxeen autonomia handitzea, beren hezkuntza-proiektuak hobeto garatzeko.
18. Ikastetxeko proiektua eta erantzukidetasun-akordioak, autonomian sakontzeko funtsezko bitartekoak.
19. Eskola-lidergoa eta erantzukidetasun-kultura, funtsezko zutabeak autonomia garatzeko.
20. Ikastetxeko Proiektuarekiko hezkuntza-komunitatearen inplikazioa, autonomia ondo garatzeko berme.